

EGUNETAKO APARRA

Joakin Balentzia Tirapu

2008ko Otsailaren 4a

EGUNETAKO APARRIK BA OTE DA?

Metafora gutxi dauzka nire poesi hizkerak, baina tartekaturik daude han-hemenka loretxo batzuen arabera. Narrazio poetikoak baitira gehienbat nireak, noizbait nahiko prosaikoak, baina neurtuak era libre batez. Bai, bada egunetako aparra dantzatzeko denbora baden bezala maitasuna egin baino lehen. Aparra du bizitzak, goian edo nonbaitetik atera eta gero desegiten dena. Itsasoan behin eta berriz sortzen da olatuek haitzen aurka jotzen duten aldiro, opari gisa. Eta esneak irakiten duenean badago, baina kontuz ibili behar da ez sobratzeko gero. Suhiltzaileek ere bitsa erabiltzen dute noizbait suren bat iraungitzeko. Baina errekek bitsa badaramate normalean erran nahi du nolabaiteko kutsadura dutela.

Denetan ez, baina anitzetan apar-irudi-metafora sobera dago gaurko euskal poemagintzan, ene uste apalean, eta garagardoan bezala kendu behar zaio gehiegi bada. Geratzen naiz Cesare Pavese italiar poetarekin eta “Lavorare stanca” (“Lan egitea nekagarria da”) bere obra bikainarekin (“Sono giovani i morti nel vivace ricordo”, “gazteak dira hildakoak oroitzapen bizian”. In prigione ci sono gli stesi. E ci sono le donne/ come allora, che fanno bambini e non dicono nulla”, “kartzelan badira berberak. Eta badira emakumeak/ orduan bezala, umeak egin eta deus ere erraten ez dutenak”). Hain onak ez izan arren geratzen naiz Bukovski eta Carverren iparramerikar olerkiarekin belardi lau baten antzekoa non italiarraren muino lirikoak ez baitira.

Bilduma honetan sartu ditut 2002an artisau erara argitaratutako poemak, “Egunkari ezkutua” alegia, non ahaztuta bainuen Txillardegiren “Leturia”rena. Jorratu ditut eta noizbait eraberritu. Olerki berriak haien jarraipena dira nonbait, azken egunetako aparra hain zuzen ere.

Lanaren lizentzia:



Aitortu-Partekatu baimen beraren arabera 3.0

Aske zara:



lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko



lan eratorriak egiteko



Baldintza hauetan:



Aitortu. Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesaren duzunik edo haien obraren erabilera hori babesten dutenik).



Partekatu baimen beraren arabera. Obra hau itxuraldatu edo bestelakotzen baduzu lan eratorri bat sortzeko, emaitza hori banatzerik izango duzu soilik baimen berberaz, antzeko baimen batez, edo harekin bateragarria den baimen batez.

- Lana berrerabili edo banatzerakoan, argi eta garbi utzi behar dituzu lan honen baimenaren baldintzak.
- Baldintza hauetakoren bat ezarri gabe utz daiteke, egile eskubideen jabeak hartarako baimena emanez gero.
- Baimen honek ez ditu ezertan gutxitzen edo mugatzen egilearen eskubide moralak.
- Aurrekoak ez die eragiten erabilera zilegien eskubideei edo lege aitortutako beste mugakizunei.
- Hau gizakiek irakurtzeko erako laburpen bat da; lege balioko testua (baimen osoa) hemen dago:

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/legalcode.eu>

EGUNKARI EZKUTUA

Maskor handia

Goiz aspertu honetan
maskor handia ez zait etorri
itsasoko urruma grabatua
ekartzera;
agian herren dago
bere haitzuloan gordeta
edo piratek bahitua,
nork daki;
baina ez naiz bere bila joanen,
iragarki bat paratuko dut,
patxada ederrean,
kulunkaulkian
itsasoari so
geratzen naizen bitartean.

Euri garratza

Euria da maltzurra
sorgin maltzurra da euria
aterperen bat ez baduzu, lagun;
lagunek ihes egin dute
eta bakarka zaude euripean;
bilatu babeslekuren bat,
badaezpada ere,
zeruari tu egiteko,
lasai eta nahi duzun erara,
euriarekin zure biraoa nahasteko;
gaur, hemen, bakarka
hartu mendeku eder bat,
baina idorrez eta,
posible bazaizu,
sutondoan,
berotu zure listua
eta jaurti urrutira
zure gainean ez erortzeko moduan;
hartu mendeku eder bat
euriaren aurka,
gaur, hemen, bakarka
eta zure biraoa
norbaiten gainean erortzen bada
ez du bereiztuko
maltzur erortzen den euriarekin.

Barkamenik ez

Ez dut inoren barkamenik behar,
joran berria baizik,
bizi eta irudikatu egin dudana
ezin ahaztuz;
ez dut barkamenik behar,
aitzitik, bide berri eta zabala,
eskuzabala behar dut:
ene buruarekin
lehen eta behin berradiskidetu
eta munduarekiko
ene euskarriak indarberritu;
“biziko gaituk” erran ohi dit
lagun zozo horrek,
hil arte, jakina,
bitartean kanta dezagun,
ozenki,
edo egin dezagun orro
modu basatira,
haurgintzan baikaude beti,
bortxaz, indarkeriaz
fereka dezagun
makila zaintsu hori
eta jo dezagun
arranguraz, amorruz
hil arte, jakina,
baina barkamenik ez.

Panta rei

Paper zuria, asmo beltza,
oroitzapen zuhurrak,
hitz zogiak,
eta zu ezin zara atzeratu:
bizitza ez da argazki zahar
eta dotore bat,
markoan ederki ipinita,
egunero miresteko modukoa;
“Panta rei” dena dario,
eta berritzen da nahitaez,
aipatu zuen greko jakintsuak
oso gustura igeri egiten
omen zuen bitartean;
baina gaur gure erreketan
ezin da kasik igeri egin
eta ez dakit
aipu hori egia den ala ez;
paper zuria, asmo beltza,
oroitzapen zuhurrak,
hitz zogiak
urmael geldo eta likits honetan.

Zutabe baten aurrean

Behin kontatu nion botikariari
zer arraio gertatu zitzaidan
oraindik gaztea nintzelarik:
jainkorik ez zela
konbentzitu nintzen, hantxe,
zutabe baten aurrean,
benazko eta hagitz arrazionala,
hunkituta ere,
irudi hura, irudikapen hura,
aieru hura,
giza asmakizun hutsa zela eta;
gero, euriaren ondoren euria,
ikusi ditut jendearen desbabesa,
gerra eta sasi-bakeak,
liskarrak eta amodio faltsuak,
iruzurrak eta promesa ez beteak,
oinazeak eta laztan pozoitsuak,
ezbeharrak eta naturako triskantzak
eta kaosa, beti kaosaren eragina...
Gaur botikari xaloarekin
solas egin dut luzaro eta sakon
eta aitortu dit berak ere
ezbaian dagoela gai horretan,
noizbehinka, nolabait,
eta zutabearenak oraindik orain
irri ematen diola,
eguraldiaz, kirolaz,
herriko zurrumurruez,
ostatuan mintzatzen garen bitartean.

Ustez hamalau, bertaratu eta lau

Bazen behin gizon bat,
arrunta, oso arrunta, baina
nahi izan zuen ezagutu, sentitu
berezia izateko modua,
eta berezia zela otu zitzaion;
munduko gauza anitz
ulertu nahian igo zen, bakarrik,
mendi garai batera,
handik panorama izugarria
ikusten zelarik:
amets zoroetako unibertsoa,
errealitate berri batera itzulita,
gorpuzten, haragiztatzen,
mamitzen ari zen
edo mamu bihurtzen ari zen...

Andre beltza eskueran
estali egin zuen behin eta berriro,
gizon jakintsu, ahalguztiduna
jainko berri bilakatuta,
biziaren eta heriotzaren indarrak
gizon arruntaren buruan nahastuta,
beti mundua konpondu nahian;
baina hondarrean
jaitsi behar izan zuen handik,
gau ikaragarria zela eta,
ez zen deus ikusten,
amets zoroetako unibertsoa
oso arriskutsua zelakoan;
eta oraingoan gizon arrunta,
iturriko ura edanez gero,
Zaratustra oso gustura hausnartuz gero,
lagunekin joaten da mendira
gauak harrapatuta ez suertatzeko
eta amets zoriontsu edo goibelen bat
hurkoekin konpartitzeko,
andre beltza aske jada izanik.

Isabel

Isabel deprimiturik zegoen egun hartan,
bere betaurreko beltzekin
agerkunde berezi bat zirudien
eraldaketa misterioitsu bat
jende arrunt haren artean;
gazte baten zangoak zituen,
finak eta lerdanak,
ferekagarriak,
gorputz meharra,
eta bular txikiak antzematen zitzaizkion
alkandora dotorearen azpian,
baina bere aurpegi helduan
nabariak ziren zimurrak,
oinazearen aztarnak,
bizitzaren bide latzak,
makillajeak ezin estaliak;
goibel, serio, hitz gutxikoa
agertzen zen andrea egun hartan,
eta erakarri ninduen kafetegiraino
era magnetiko batez,
bere betaurreko beltzak
kenduta zituelarik:
isiluneak ziren gure artean
solasa baino gehiago;
bere poltsa handian
misterio ezkutuak gordetzen zituela

iruditu zitzaidan tenore hartan,
andreak behin eta berriro
bere barrukoa arakatzen zuelarik.
Isabel deprimiturik zegoen
egun hartan eta hurrengoan ere;
han geratu da, bakarrik,
jende arruntarekin;
gaur joan naiz berriro kafetegira
eta han zegoen goibel, serio,
bere misterioa ongi gordeta;
telefonoz deituko zidala erran zidan,
baina orain arte
ez dut bere ahots sakon eta ezitia aditu
eta nik ere, Isabel,
bakarrik lo egiten dinat, momentuz.

Geranio hil bati hilartitz mindua

Badaukat ene etxean lorontzi batean
hazitako geranio zahar bat;
ureztatzen nuen noizean behin
eta ongi zainduta zegoen
xeraz zaindua ere;
leihoko bere tokian
eguzkiari so egiten zion
adeitsu eta maitagarri,
hitzik gabe baina adierazkor,
esanguratsua zen bere izaera berdean
eta loreak ematen zituen aro egokian,
barneko eta kanpoko paisaia
alaitu, zorionduz
irriño eder bat zen
leiho zaharkitu eta zikin horretan;
lorontziak badira lorategi bat
edukitzeko abagunerik
ez daukan jende lorezalearena,
eta ene auzoan badira leiho eta balkoiak
ongi apainduta, lorez hornituta.
Nik ez nion hitz egiten
geranio zahar horri
hain txoratuta ez nagoelako,
baina elkar maite genuen,
errespetatu ere, bakoitza bere txokoan.
Hondarrean nire geranio ajetsu horri
iritsi zaio heriotza
negu honetako izotz itzelak
ezin baititu jasan, gaixoa,
eta erabat lehortu egin da, zimelduta;
oraindik ez dut erauzi
eta ez dakit noizbait egingen dudan

beste berri bat landatuz,
pena ematen baitit ene geranio zimel
eta orain itsusi horrek;
heriotza gogorarazten dit,
amodio galduak, iraganeko oinazeak
eta bizipozak ere
zahartzen ari naizen
denbora gazte honetan.

Nahitaez

Maite dut ene burua, nahitaez,
agian mendiak maite duen bezala,
iharra bada ihar,
hezea bada heze,
zauritua bada zauritu,
zorionsua bada zorionsu;
agian hodeiek maite duten bezala,
euria ari duenean
ez dira batere malkoak,
opari eskuzabalak baizik,
eta lainoa bakarrik baldin bada
haien sekretu ezkutuak
antzeman, sumatzen ditut
maitale baten besarkadaren antzera;
maite dut ene burua, nahitaez,
agian zuhaitzak maite duen moduan,
hostotsua bada hostotsu,
haizeak astindua bada mugitua,
ibaiak ureztatzen bada laztandua;
agian espero dut amodio natural bat,
mendia, hodeiak, euria, zuhaitzak,
haizea, ibaiak bezala,
azken maitaleak utzi bainau,
baina maite dut ene burua, nahitaez.

Platon berriro

“Nik adierazten dut justizia ez dela
indartsuenaren komenientziarik baino” Platon

“Justiziak zaunka egiten dio ilargiari”
erran omen zion poliziak delinkuenteari
buruan tiro bat botatzen zion bitartean;
poeta ote zen ala asasino hutsa?
Tiro hotsa ez zuen inork aditu
eta gero balistikak
ez zuen deus ere frogatu;
bakarrik txoriak izutu ziren
tenore hartan, lekuko mutu...

Belarri gingila

Belarri gingila ferekatzen didananean, laztana,
xerazko hitzak xuxurlatzen dizkidanan, orain,
edo isilik egiten dun noizbait,
baina beti zirrara ederra
sumatzen dinat gorputz osoan,
dardara, zirgitaldi ikaragarria zabaltzen zaidan
bihotzean, odolean, larruazal guztian,
eta segi ezan, segi, ahots apalez
adierazten dinat, erreguka ere,
eta hire hatzek mingainari uzten zioten
aukera gozoa belarri gingila miazkatuz;
geroago hik ere atsegin dun
belarri osoa zurrupatzea, umeltzea,
ihintzak bustiriko belardi baten antzera,
eta bide batez ene atzamarrak hasten ditun
hire gorputza arakatzen, herabe, dorpe,
fereka bihurtzeko zalantzako asmoarekin;
maitale baldarra naizela
aitortu behar baitut, kutuna, orain hirekin;
amodio hutsal anitz izan ditinat
urte luze eta malkar hauetan
heldua naizela dioten garai akitu hauetan,
baina oraindik bizigarriak sentitzeko gauza naun,
hirekin, orain, maitea,
belarri gingilatik hasi eta ene soin osora
hedatzen diren xera abegitsu horiek
sumatzen ditudanean.

Urrats bat

Ubarroiak libre daude jadanik,
munduko ubarroi guztiak
aske dabilta orain,
itsasoan zehar, kostaldetan
euren hegaldi laburretan,
ur gainean igeri egiten,
eta arrantzan harrapatzen duten guztia
beraientzat eta kumeentzat da,
iaioak baitira ur azpitik arrantzatzen;
oraingoan Asiako arrantzale batzuk
ohitura zaharrari utzi omen diote
eta ez dituzte hegazti eder horiek erabiltzen
(itsas beleak deitzen direnak)
soka batez lotuta eta eraztun bat lepoan
era berezi horretan arrainak hartzeko;
lehen ubarroiak arraina harrapatu bai,
baina ezin zuen irentsi

eta bere jabeak ateratzen zuen etekina...
Halaxe informatu ziguten atzo
eta nik ez nekiela aitortu nuen,
gora ubarroi libre guztiak!
urrats bat da behintzat
zure sorbaldan nire besoa,
guardasolaren azpian
paratzen dudanean pentsatzen dut;
eta hori, lagunen arteko keinu xume hori,
urrats bat, aurrerapauso bat izan dun ere,
geuk ez dinagu beharrik izanen
inongo eraztunik, inongo sokarik,
geure artean pizten ari den amodioari eusteko:
gora gu lehorreko ubarroi libre guztiok!

Oraindik, hemen, geure artean

Artoski nahi nuke hau guztia adierazi
gaizki ulerturen bat ez izateko;
hala ere badakit atzerritarrak direla
geure artean, ezjakinak,
noizbait arerio bihurtzen direnak;
baina hemen daude
gurekin bizi, gozatzen, lan egiten
eta gorrotatzen ere bai,
herra hagitx hedaturik baitago
oraindik, hemen, geure artean,
eta aitortu behar dugu
alde guztietatik marraskatzen gaituztela
oraindik, hemen, geure artean;
jadanik orbainak ditugu erruz
gau izugarri eta amaigabe honetan
egindako zaurietan;
baina ebakiondo horiek guztiak
behin eta berriz
irekitzen dira aiherkunde berriekin
edo zaharberriekin,
oraindik, hemen, geure artean,
irainak berregiten zaizkigulako;
artoski adierazi nahi nuke hau guztia,
samurki, amoroski,
adeitsuki, abegitsuki,
baina ezin dut benetan,
baizik eta hainbeste irain eta zaurien aurrean
baldarki garrasi, aldarri egin behar dut
barkamenik eskatu gabe,
nire etxean bertan bainago.

B. Etxepareri, maiteminez

Asaldura, aztoramena eta gero
baretasuna dun,
gozo, atseginkoi sentitzen naun
hirekin maitasuna eginez gero, bihotza;
pilpirak baretu ditun, antza,
baina gorputz osoko korronte
ikaragarria sumatzen dinat oraindik
tarte luze batez,
emeki larrua jotzen jarraitzen baitut
era ezberdin batez, kutuna;
hirekin erabat lotuta nagon
sar-ateratzeari utzi eta gero,
hire plazerrez gozatuz behin eta berriz;
oinak, lepoa, izterrak,
titiak, titiburuak, listua,
non nahi dun nik zurrupatzea?
Baina hondarrean onartu behar dinat
nekatuta nagoela,
eta hi haiz eremu irristakor honen
ugazabandrea, jainkosa ote?
Hau dun parabisuia, oraintxe bertan,
geure arteko atseginkoitasun presentan.
Bihar oso egun urruna dun, ezta?

Filosofoen kontua dela eta

“Gizartekotasunak hilezkortasuna ordezkutzen du”
aipatu zidan behin lagun batek,
eta nik baietz erran nion;
“lagunartekotasunetik dator gizakiaren handitasuna,
eta bere miseria ere,
besteak, gu bezala, hutseginkorrek baitira”.
“Humanista harrotzat” hartzen zuen
bere burua lagun pentsalariak
eta frantses iturrian
edandako zenbait ur distiratsu
aipatzen zizkidan luze eta aspergarri;
nik egonarriz aditu nion
zer edo zer ikasi nahian
eta ezagutu nuen harengan zenbait berri zahar,
alegia, “akats libreak inposatutako egiak
baino gehiago balio du”
eta “egia baliotsua da
batez ere gizakiarengan
sortzen duen aurkitzearen beharraren jardueragatik”...
Baina lagun humanistarekin
gehiago solas egin ondoren
ohartu nintzen bere lorategi inperfektuan
itxita zegoela,
eta mundua zabalagoa zela, zorionez,

eta esku zikinak ditugula denok,
eta Foucault ere sar daitekeela
zabortegi perfektua dugun honetan,
eta “ikasiaz naiz
nire zapaten iltze bakar bat ere
Goetheren irudimen guztia
baino mingarriagoa dela”,
poeta sobietarrak dioen bezala.
“Ez zekiat humanista naizen
edo zer arraio naizen ni,
baina harro nagok ni ere bai”
erran nion lagun pentsalariari
eta taberna ilun batean gonbidatu nuen
kopa bat patxaran hartzera,
akats librearen bat aurkitzako asmoz.

Neuroigorleak

Ziztadak, akuilakadak, taupadak,
neuroigorleen lana ala beharra?
Ez dakit.
Ala ariketa fisiko falta?
Ez dakit.
Gorputz estrainioa dut
adin heldu eta ondu honetan,
arbolatik erortzeko zorian
dagoen fruitu umotu garratza;
baina bedatse da oraindik
eta ez naiz egun bakar bateko
tximeleta eder eta gaixoa;
agian haritza, pagoa naiz,
edo zutik hiltzen diren
zaldi horietakoa,
edo azal gogorreko elefantea,
bere eremu babestuaren jabea;
ehiztari oldarkorren bistatik
kukutzen den benetako basurdea naiz,
azken finean,
zenbait lagunek deitzen didaten erara,
amoroski batzuk,
irriguraz beste batzuk,
iseka egin nahian ere,
eta neuk ene buruari deitzen diot ere
irribarrez eta errukiz,
basurdea haiz, motel!
Irriaren ene historia propioa
eraiki, osatu, asmatu nahian;
ziztadak sumatzen ditut nonahi,
baina ez dira zauri larriak
iraganeko garai latz eta asaldatu haren antzera,

ene burua tente, errime, erne dagoelako,
eta oraingo akuiladek
ez didate minik ematen,
era natural batez jasotzen baititut,
bihotzeko taupadak bezala,
neuroigorleen lana eta beharra.

Gainbizi ala biziraun

Onar dezakegu gainbizitza dela
geure ahalbideen gaintik nolabait bizitza;
adibidez, ez dugun dirua xahutzea,
ez dugun denbora zarrasteltzea,
ez dugun amodio ustela xerkatzea,
ez ditugun amets hutsak eratzea;
eromena izan liteke gainbizitza, akaso,
baina nik ez dut nahi gainbizi,
biziraun baizik;
noiz arte ez dakit;
hilezkortasunean sinesten ez dudanez,
bihar arte bederen,
eta bihar, etzi arte,
eta etzi, etzidamu arte,
eta damutu arte biziraun,
lagunen oroimenean nolabait,
noizbait bizi,
ezerezean desagertu arte...
ezereza, biziraupen eternala akaso.

Itzultzaile batentzako lana

Ezagutzen ez duena gaitzesten duen horri
eskaini nahi diot
ene hitz arrotz hau,
apalki, badaezpada ere,
ulergarriki ere bai,
ez nahasteko moduan;
itzultzaile iaioak direnez gero
ene berba barbaroak
egokituko dituztelakoan nago:
ni hemengoa naiz,
jaiotzez, lanez,
bihotzez, gorputzez,
ametsez, heriotzez,
hauxe da ene lengoia propioa,
odolez egindakoa
mende anitzetan zehar;
zu mintzatzen hasi baino lehen
hemen nengoen ni,
hiztun, sinesdun,

ene mito eta jainkoekin,
bakean,
lurralde lau eta malkar hauetan,
lagunen artean,
solas, maitasuna egiten,
noizbait itsasoari
baina beti eguzkiari so
ama lurrarekin loturik;
baina zuk, ezagutzen ez duena
erdeinatzen duen horrek
ez duzu ikasi nahi
orain dudan kezka guztia,
bihotzean, gorputzean,
heriotzan, odolean,
eta nire lengoaia berezi eta zaharra
arbuiazen duzu
modu basati batez,
eta ez dugu elkar ulertzen, jakina;
zure hizkuntza ikasia dut
halabeharrez, nahitaez,
baina zuk, berriz, nirea ez,
eta elkar joka gabiltza aspalditik;
otoiz egin dezagun,
edozein hizkuntzetan,
jainkoren batek gorde gaitzala
bion bihotza,
heriok aginduta,
izoztuta ez geratzeko.

Anjelari

Andre mestizoak,
beltz deitzen dioten gizalaba
sentsual, atseginzale horrek
anitz maite du,
babeslekuren baten bila zebilen
bere amodio xumea eskaintzearren,
baldintzarik gabe,
bere seme beltza galdu,
bere gizon beltza ere hil ondoren;
asasinatua izan zen bere senarra,
odol hotzean, ofizialki,
aulki elektriko izugarri horretan,
ez dakigu zergatik,
erruduna zela aitortu eta gero,
bere zigorra erlijioski onartuta ere;
baina kartzelari gaztearen suizidioa ikusita
ez dugu jadanik sinesten
erlijio anker horretan,
andre mestizoaren bizitzeko

grina gartsuan baizik;
bere gorputz beltzaran eta lizun horretan
zetzan heriotzaren, hilketaren aurkako
garaipen liluragarria;
sentsualitate egartsua du,
hainbeste urtetan asebate gabe,
bizitzaren kartzela itzel honetan,
andre eder horrek;
oraindik maite hau, Anjela,
agian egun batez jaikiko gaitun
eta elkartuko gaitun berriro
bidegurutze argiago batean,
eta dastatuko dinagu
elkarrekiko larru zuri eta beltz honetaz.

Musika

“Anparanoia” musika talde bat omen da,
baina inoiz ez dut entzun,
nik dakidanez bederen;
hala ere gustuko dut izen hori
enetzat esanguratsua delako:
babesik aurkitzen duen paranoia-edo
izan liteke;
horrela ederki itzulita liteke
anparanoia iraunkorrean
bizi garenontzat,
gu, ero zintzo, ausartok,
debeekatutako bidezidor arriskutsuetan
ibili ohi garen jende estrainioa,
oraindik eromenaren laudorioan,
tradizio onaren arabera,
sinesten dugun gizaki zuhurrok;
nahiz eta noizbait eldarnioren bat
jasan, sufritu, antzeman, amestu,
ezin dugu errealitate deitzen den
hori guztia, nahitaez, amarrurik gabe,
geure galbahe zorrotzetik iragazi gabe,
edozein modutan, onartu ere;
maisuharrak eta sasi-maisu berriak
ezin ditugu irentsi,
harrietan jo, suntsitu, txikitu gabe,
hauts egokiren bat bihurtu arte,
eta, zenbait odol tanta profitatuz,
kaka eta txiza ere
bota behar ditugu bapo,
harriak berriz giltzurrunetan
izan ez daitezela,
eta horretarako osasuntsua da ura,
geure berezko iturrietako likido naturala,

nahiz eta noizbehinka kutsaturik izan;
musika zoragarria da hori
tripetakoa izanda ere
anparanoiarena, neurea, jakina.

Lertxun bi, U2

Ene auzoan harro, lerden, errime
dauden lertxun bi horien aurrean
eman dut udaberri gozo honetako
ia arratsalde osoa,
ilargi leunari begira
sorginaren terraza apalean jarrita,
erretzen,
patxada ederrean bizitzaren keaz
gozatzen,
kafesnearen zapore arreez
dastatzen,
gehien bat isilik,
trafikoaren ohiko zarata
entzuten,
eta elkarrizketa hurbilen bat
aditzen,
ene aurretik pasatzen zen jendeari
so egiten,
bere bizimodua, lanbidea eta sekretuak
igarri nahian,
baina ez dut deus ere garbirik atera
ene irudipen horietatik;
bakarrik lertxunak ziren errealak,
eta nolabait ere eguneko
antzeman ilargiaren irudia,
eta kea, kafea,
trafikoaren aurreko ene isila ere
agian errealak ziren, ez dakit;
geroago etxean entzun dut
U2ren azken diskoa
eta New Yorki buruz
kantatzen omen dute horiek,
eta gustuko ditut
nahiz eta letrarik ez ulertu;
bai “beautiful day”
horren zentzu egokia
eman didate gaur ene auzoko
lertxun bi harro horiek,
badakit.

Ritxi

Lagun berezi bat dut,

auzokide hori,
beltzaran, arin, ibiltari iaioa,
zimur ugari ditu aurpegian,
ile beltz eta zizurra,
karantza arrunta du,
eta jaiegunetan ere
lanerako prest dago jantzita,
baina ez du lan ofizialik egiten
pentsionista delako,
berak, nolabait etsiturik,
nolabait nostalgikorik ere,
beti errealista,
aipatzen duen moduan;
berrogei urte inguru ditu,
gazte oraindik,
sasoi onean,
denbora galtzeko abagunerik badu,
auzoa eta ingurukoak
puntatik puntara azkar ibiltzeko,
bere buruaz irri egiten
edo auskalo noren lepotik,
noizbait bere buruarekin solasean,
tabako beltza erretzen
keinu dotore batez,
eta akitu bazaio
ezagun, ezezagun, lagun bati eskatzen;
ez da asko gelditzen,
beti presaka dabilela dirudi,
ez omen zaio gehiegi interesatzen
besteen kezka eta bizimodua;
noizbait galdera motzen bat egiten du,
itxuraz kasu handirik egin gabe,
baina hurrengoan gogoratzen da zutaz
eta nolabait ere zure erantzunaz,
eta ongi badaki
sorginaren tabernako jabeak
ez diela neska zerbitzariei
batere ongi ordaintzen,
eta horregatik alde egiten dutela,
baina politak dira, amigo,
erran ohi du
irriño konplize esanguratsu batez;
Ritxi oso ezaguna da auzoan,
bere bizimodua, bere egia,
bere munduaren egia
harrotasunez defendatzen duelako;
noizbait asmakeri bitxiak
botatzen ditu, denok bezala,
eta ez zaio batere axola zuk ez sinestea;
nik ez diot inoiz ene mesfidantzarik

adierazi bere munduaren egiaz,
nirea ere zalantzakoa delako;
atzo tarte luze bat geratu zen
nirekin solasean,
inoiz baino gehiago,
eta nik eramaten nuen euskal liburua
hartu, ukitu, orriak pasatu
eta aipatu zuen
“hau poesia duk, ezta?”
Mahai gainean geratu zen liburua
itxita, ene irakurgaia
Ritxirengan aski izan zelako.
(A! liburuaren eguna omen zen).

Beti zalantzan

Pazientzia, egonarri pixka bat izan, motel,
urte bat edo bi,
hau ez da betirako,
heriotzak bakarrik ez du erremediorik,
bere sega ezagun horri esker
izanen dugu bakea,
behin betiko atsedena (?!);
nik, ezinegonez, aztoraturik
ihardesten dut ezetz, ezetz,
ez dudala bakerik nahi,
atseden zozorik ez, momentuz,
eta eskeleto segadun horren aurka
errebelatzen naiz ene indar guztiez;
lo egin bai, beharrezko unetan,
gozamen, plazer handia da hori,
baina betiko loaldirik ez,
betiko atsedenaldirik ez;
noizbait izan dut heriotzaren beldur
(bakarrik eldarnioz josita nengoelarik),
antzinako eta jatorrizko izu hori
benetan bizi izan dut
erraietaraino, muinetaraino,
eta hil naiz, egiatan,
baina lokamuts maltzurak ziren,
espantuak, benazko mamu iragankorrak,
errealak, ordea,
benetakoak, orduan;
orain, aldiz, hainbeste prestakuntza ondoren,
bedatse samur honetan,
heriotzarako berebiziko bidea
egiten ari naiz,
egonarririk gabe,
izurik gabe,
bakerik gabe,

aita santurik gabe,
jesukristorik gabe,
lagun hurkoekin patxadan,
arerioekin borroka latzean ,
maitaleren batekin larrutan,
ezezagunen susmopean,
ene buruarekin tirabiran,
beti zalantzan.

Amodioari buruzko galderak

Maiteminduta nagon?
Ala maitemintzen ari naun?
Bat-batean maitemindurik ote nagon?
Ala poliki-poliki?
Posible ote dun maitemintzea?
Zer, nor, non, noiz maitatzea?
Hire burua lehen eta behin, ezta?
Eta gero, auskalo! Nork zekin!
Ba omen zagon jainko haur itsu bat
ez zekinagu nora
bere gezi pozoitsu horiek jaurtikitzeko,
eta asmatu dun ere
santu barregarriren bat horretarako;
bitartean maitasunaz
maiteminduta hago,
aipatzen din ergelen batek;
bai, nahi dun maite egin,
maitaturik izan,
maitaturik izan hi heu izan hadin,
maitaturik izan nolabait existitzeko,
baina ez haiz maitasunaz maitemintzen,
bizitzaz, existentziaz, iraunkortasunaz
maitemintzen haiz nolabait,
hire burua maite dunan artean;
lepo eginen niken
benetako suizidioa izanen litzatekeela
hik hire biluztasun, miseria,
ezerez osoan
ikusiko bahu hire burua,
inork maitaturik ez den hori,
bizirik hildako hori,
txakurrak bederen maite bahau, ederki,
txakur-bihotzak maite din bere erara,
agian Bulgakovenak baino gehiago,
maisuaarenak eta Margaritarenak adina;
nik maite haut, bihotza,
txakur-bihotz hori,
gizalaben taupaden arabera,
oraintxe bertan,

hementxe bertan,
egin dezagun maitasuna
idatzitako paper irristakor,
likits honen gainean,
geure larru latzen eta gozoen artean,
nahiz eta momentuz maitemindurik ez izan,
larruaren premia dela eta,
gabeziaren beharra biok izanik,
amodioari buruzko galderak
eta zalantzak aparkatuta
biharko, etzirako, ez zekinat noizko
uzten ditugun bitartean,
goza dezagun behingoz,
eguna eta gaua laburrak baitira.

Urtebetetzea

Hogeita hamar euro eman dizkiot
ene iloba pertxenta horri
bere urtebetetzean, bihotzez,
gutxi bada gutxi zerbait da,
nahi duen erara gastatzeko;
agian gustatzen zaion
beldurrezko libururen bat erosiko du,
edo bere mutilarekin
tabernaz taberna ibiliko da
zerbait hartzen eta musukatzen,
amoroski,
edo gordeko ditu zinera
edo dantzaleku batera joateko,
edo niri axolarik ez didana egiteko;
iloba azkarra, bihotz onekoa da,
ikasia, ongi hornitua;
badaki irakurtzen,
bizitzan bertan gauza berriak aztertzen,
eta azalpen egokiak ematen ere.
Perfektua ote da?
Ez dakit,
Ez naiz berarekin egunero bizitzen.
Gaur desiratzen diodan bizitza luzea du
bere aurretik
ezinezko hobezintasun horretaz
dastatu, pairatu, gozatzeko,
eta nolabait ere hausteko,
eta puskak bildu ondoren
berreraikitzen ibiliz;
neska gaztea da oraindik
behin betiko porrot mingotsaz hitz egiteko:
baikor, eder, udaberriko loraldi
sutsua bizitzen ari da

bere haragi fresko, zalu horretan,
eta ez da izutzen
beldurrezko istorioekin
besteen bizimodu estetikoak baitira
geuk ongi pasatzeko modukoak;
egun familia handia elkartuko gara
irri egin, autu-mautuak kontatu,
bapo edan, jan
eta politikaz azaletik hitz egiteko
haurridetasun txiki bat,
zenbait ordutan, samurki eratuz;
urtebetetzea dela eta
jalgiko dira
antzinako kontu eta xeibrekeriak
lagun hil eta bizien oroitzapenak,
helduen gauza zaharrak,
eta gazteak, ziur aski asperturik,
telebistari so geratu
edo kanpora joanen dira.
Ez dun deus ere gertatzen,
iloba polit hori, deus ere.

Igande bat

Gaur, igandea denez,
ez dut deus ere idatziko
hitz xume hauek ez badira;
lagunen artean solas egiteko
balio duen egunkari baldar honetan
isuriko ditut ene likiskeriak
ongi apaindu eta ordenatuak,
ederki prestatuak heriotza baten arabera,
eguzkia eta airea hartzera
joan baino lehen;
egunkariren bat leituko dut arretaz,
baina denbora asko galdu gabe,
agian hitz, esaldi bitxiren bat
aurkituko dut nonbait,
baina berririk ez,
egunero alde guztietatik
bonbardatzen gaituztelako
eta ikasle erresumindu horren
triskantza izugarria
atzo hedabide guztietan agertzen zelako,
eta Frantziako eskuinmuturrera
jotzen horrek ez gaitu harritzen,
eskuinaren eskuina
eskuin zaharra bera delako
itxura berriaz mozorrotuta,
eta palestinarren genozidioa

aspalditik iragarria zelako,
eta geurean emandako torturaren aurka
biziki oihukatu, aldarrikatu
hormetako irudi zikinetan
egunero irakurtzen ahal dugulako,
eta norberaren sentipen intimo,
pertsonek eta ezkutua, berriz,
ez da albisteetan agertuko, zorionez,
intimitate eskubideren bat
nolabait baldin badugu
jende arruntok,
anaia nagusi hori
beti zelatan dagoelako;
izan ere, karrikara jalgiko naiz
jaiegun honetan
eguzki zahar eta berriaz gozatzearren,
ahal dudan moduan
naturarekin nahasteko,
pertsonek-maskaren artean ibili,
ene barruko sekretuak
beti euskaratu nahian;
eta arratsaldean agian
zinemara joanen naiz
ilunpetan negar, irri,
irribarre egin nahian,
edota gorritxoak animatzeko
lagun kirolzale batekin
elkartuko naiz kafetegian
telebistaren aurrean.
Zer arraioa, igandea da eta!

Jazz pixka bat

Keith Jarrett-ek iratzarri nau hondarrean
astelehen madarikatu honetan;
jazz maisu ilun eta argi horren
nota oldartsu, samur, amaigabeak
sumatu, antzeman ditut
bere deabruzko pianoan
ezkurturiko asmo amestuen antzera
egunsenti lainotsu honetan;
laiari laiotz ahaztua naiz
egun berria hasi baino lehen,
oroitzapenak, zenbait oroitzapen soilik
suspertu, berreskuratu nahian;
gaueko kontzientzian
hil dira hainbeste mamu more,
hainbeste bizipen unatu
eta atzoko hainbeste kezka jasanezin;
loaldi bikaina izan dut, bihotza,

baina arturratzen duenean
ez dakit nola biziko dudan
gaurko asaldura berria
eta borrokan nago nire buruarekin:
izan ala ez izan,
hil ala akabatu,
gogoratu ala atzendu,
barkatu ala gorrotatu,
dena dela maitatzea da hori guztia
edo bizirautea ere
aste hasiera nazkante honetan,
non munstro familiarrak,
errugabe, ankerki,
barkamenik gabe berpizten diren,
eta ez dakit oso ziur
non nagoen, zer naizen
ala zer izan nahi dudan
arturratzen ari duen tenorean,
biktima ala asasinoa,
maitatzailea ala maitatua,
adiskidea ala arerioa,
zanpatua ala zanpatzailea,
emakumea ala gizona,
edo pixka bat denetarikoa;
hondarrean, oraintxe bertan
sortzen ari den
haur jaioberria naiz, laztana,
jazz musika berezi horren arabera,
beti bizitzen, hiltzen,
bizkortzen, amatatzen,
alaitzen, tristatzen den hori
behar izan dut gaur ernatzeko.

Amorru infinitua

Zaila da infinitua adieraztea,
baina, lagun batek dioen moduan,
infinitua adierazten ahal da
infinitua ez dagoenean,
infinitua ongi sentitu ondoren, ordea;
amaigabea da ene amorrua gaur
eta ez dakit nola aipatuko dudan
hiraz jositako zelai urratu honetan,
zaborrieriaz betetako gunen zanutu honetan;
ez dakit, baina saiatuko naiz
hitzen segida honetan
ene haserre bizia adierazten;
lagunen artekoa da ene solasa bereziki,
baina badakit estrainioren batek ere
ikasi duela geure hizkuntza,

nolabait, nonbait,
geure berebiziko lengoaiak
botere faktikorik duelako,
eta hitzek, euskal hitzek ere,
nahiz eta izaki txikiak izan,
badute aginterik,
hiltzeko ala bizitzeko aukerarik,
nahiz eta benetako sentimenduak,
barruko grinak, oinazeak, pozak
besteek osoz konprenitzeko
berba ukituek,
topiko antzemandako horiek
balio ez duten;
beraz, ahaleginen naiz
hurbiltasun kaskarren batez
ene gaurko sumindura aldarrikatzen,
ene hitz desegoki hauek
orro basatiren bat bihur daitezela,
antzinako harpeetan
oihartzun egin dezatela,
lasai, mantso, erne, ozen
irrintzi egin dezatela
mendiz mendi,
bailaraz bailara,
hiriz hiri,
auzo auzo
jalgi daitezela karrikara, plazara:
Aski da! Stop!
Eta barbarik gabe geratzen naiz
oraingo tenore unatuan,
euria, ekaitza, trumoi, oinaztargiari
igarobide eman nahian,
eta ni, hiztun trakets hori,
isilik geratzen naiz. Stop.

Maiatzaren lehena

Aspalditik ez naiz joan
langileen eguna ospatzera,
edota nolabait borrokatzera,
manifestazioren batean,
uste bainuen,
sinesdun inozo horrek,
klaseak, klase-gatazkak,
beren jatorrizko zentzuan
desagerturik izan zirela;
eta halaxe izan liteke
hainbeste konbenio,
hitzarmen iruzur egindako,
beharginen makurkeria behartu

edo “ongizate” estatua
hanpuruskeriaz deitu hori ikusita;
baina mugak ez dira inoiz
argi eta garbirik izan:
ba omen ziren burgesak,
burges txikiak,
handiak eta handienak, oligarkia,
inperialismo eta multinazionalak,
eta beti zegoen herria, jende xehea,
nekazariak eta proletarioak,
behekoak,
eta klase kontzientzia zutenak,
nahiz eta behartsuak ez izan;
gaur berriro
galdetzen diot ene buruari:
hori guztia desagertu al da betirako?
Zeren edo noren amorekatik?
Ez, ezta pentsatu ere.
AEBa beste mundu bat da,
New York sagar handi
eta ustel hori, lekuko,
eta Hollywoodeko beren ereduak
gero eta gutxiago funtzionatzen du
miseriaz gurutziltzatu
planeta honetan,
eta nolabait globalizatzen ari gara,
halabeharrez,
norberak bere txoko propioari
kontzientzia berriaz eutsi
eta munstro itzelei
elkarrekin aurre egiten;
herri xumea da geurea,
eta ez gara oro har hain pobre,
baina informatuak gara
eta badakigu aski injustiziaz,
geure berezko haragian
jasandako oinaze eta minaz;
eta, gaur lurreko paria guztiak
batera altxaturik ez izan arren,
oraindik badirelako
gosez hiltzen direnak
edota mendebaldeko klase borrokaren
notizia zaharkitua
jaso ez dutelako,
ni joanen naiz manifestaziora
bandera gorri baten atzetik,
morruntasunaren aurka,
bidegabekerien kontra,
gizaki eta herri zapalduen alde
aldarrikatu nahian.

Auzoko bestak

Lehertu da, eztanda egin du
auzoko jendearen ohiko bizimoduak,
musika, txarangak, dantzak,
diosal gartsuak, solasaldi ozenak,
edari eta janari ugariak,
gaur denak dira lagunak eta adiskideak,
bestako haurridetasun gozo honetan,
urtean behin bederen, ezta?
Gizakiok nahi dugu atzendu,
nolabait ahaztu
bizitzaren eguneroko kezkek,
nekeak, zauriak,
eta altxa egin, algaraz erran
inola ere ez gaudela makurturik,
bizirik, susperturik, ernerik baizik,
saio gaizto eta maltzur guztien aurka,
euri garratzaren aurrean
beti gordelekuren bat aurkitzen dugula,
irriaren terapia herriko asmakizun,
aurkikuntza zahar eta egokia delako,
nahiz eta egun zolituren batek
botika berriaren antzera
saldu nahi duen;
giza jendearen berezko ezaugarria da
irribarrea, irria eta algara,
eta haurtxoek hitz egiten ikasi baino lehen
ederki dakite irri egiten,
baina tximuen eta hienen
keinu eta soinu arraro horiek
ez dira batere irririk,
hor dago koska,
pertsonek eta animalien arteko
diferentzia nabaria,
eta ez negar egitean,
hauek ere lantua jotzen
eta mainak egiten badakite
minik adierazterakoan;
biltoki berri batean
gaur elkartu naiz
lagun ezezagun batzuekin
zer edo zer edan
eta euskaraz hitz egiteko asmoz,
eta egin dut topo
mutil jator eta xalo batekin,
geure bizitzaz solas egin dugu
pixka bat zarataren artean,
hemengo musika

jotzen zuten bitartean;
geroago herriko tabernara
joan naiz bakarrik
eta ez nuen inor ezagutzen;
hondarrean, sorginaren kafetegian
akitu dut eguna
ene berebiziko akelarrea
ospatu nahian,
gauetz, odolez, adiskidez,
sentimendu kontrajarriez
horditurik.

Bi seme

Atzo erran zidaten Izartegiko
ene semearen aspaldiko laguna
kartzelan zegoela preso,
epaiketarik gabe,
defentsarik gabe,
desbabes osoan,
eta hunkitu nintzen
ia malkoak jalgi beharrean,
baina eutsi nien,
eta bere aita eta marekin
luzaro hitz egin nuen
informazio eske:
haren kontrako
batere frogarik ez zutela,
bere buruaren aurka
ez zuela deus ere sinatu,
eta bakarrik ohiko
polizia txostenen bat
ba omen zegoela...
Herriko tabernan goian zegoen
izenik gabeko bere argazkia
eta ez nuen ezagutzen
gizon gazte baten antza zuelako,
eta nik haur bat zenetik
ez nuen ikusia;
tenore hartan erabaki nuen
bi seme nituela jadanik,
bata ziegan adoptaturik
eta ene haragikoa bestea,
biak urruntasun hurbilean kutunak,
biak ene auzoko euskal sehaskan
mamitu eta hezitakoak,
bizitzaren bi modu
diferentetan ibiliak,
baina itzal berekoak,
iragana, oraina eta geroa

dena nahasita ene bihotzean;
ene enbor helduak
bi ezpal gazte,
zalu, zoli, erne ditu orain,
eta badakit
egur sendo horretatik
aizkolari treberen batek
erauzten ahal dituela
dozena, ehun, mila puska gehiago
bakean utzi arte...
Bihar herrira joanen naiz
ene odoleko semea bisitatzera
eta, bere lagunaren berria emanez,
ziur aski erranen du
bere era ironiko horretaz,
espantua!,
geure hizkuntza erabat polisemiko
eta aberats honen araberako
lau erranahi behintzat
duen berba berezi hori,
espantua!
Iparraldean era batez,
hegoaldean beste batez,
baina batuak gara jadanik,
eta enbor bizkor eta bakarra da,
hainbeste ezpal berri sortu,
su bikaina eratzeko modukoak,
eta txingar iraunkorrek
ez dira hain erraz
amatatu, iraungi, itzali;
nik, aita harro honek,
momentuz, seme bi bakarrik ditut
pertsonek ezagutuak,
hazi-hezitakoa eta besoetakoa.

Munduko egongela

Badago inguru honetan
munduko parkea
deitzen duten txoko
berde eta ongi moldatu bat,
hurrek eta guraso pazientek
jolasteko aproposa,
ibiltari arinak zeharkatzeko,
eguzki gorria bada
itzalpean ere jartzeko,
gazteek, lotsarik gabe,
berdegunean
musukatu eta besarkatzeko,
txakurren batek

korrika eta kaka egiteko,
eta, nahiz eta debekaturik izan,
bizikletaz ibiltzeko,
eta baloiak ere agertzen dira nonahi
munduko parke zoragarri honetan;
eta badira egongelak deitzen diren
haize zitalaz babesteko
balio duten adreiluzko
eserleku aproposak
non neguan
eta udaberri oraindik hotzean
esertzen baitira
zenbait jubilatua eta pentsionista;
gaur horko egongela batean,
halabeharrez,
bi gizon elkartu dira,
bata agurea eta heldua bestea,
biak jubilatua
hitz asperturen bat
egiteko aukeran;
eguraldiaz,
eguberri honetako denbora zoroaz
pixka bat mintzatuz gero,
hasi dira beren bizitza
eta bizimodua kontatzen:
Burgosko gizon zaharra
postaria zen
eta madarikatzen duen
gerra hura bizi izan zuen
haurra zelarik;
bere eskuez
lurra zulatu zuen,
aitarekin batera,
urdin haiek hildakoren bat
bere lursailean
kukutu eta lurperatzeko;
gizon helduak,
maisua ohia denak,
badu interesik eta,
gaztelaniako ezagun berriari
oroitzapenak harrotu nahian,
une egokietan
galderak eta azalpenak egiten dizkio
biziaren liburu zaharkitu horretan
zer edo zer ikastearren:
agurea ziur dago
diktadore bibotedun hark
Mola ausarta eta enparauak
hilarazi egin zituela,
bere burdinazko eskuan

Espainia osoa izateko
tamalez ohatzean hil arte;
eta hemengo maisu ohiak
argitzen dio
Santoñako almirante itsusi zatar haren
heriotzaren oroitzapena,
hura bere etxean ez zela hil,
hegaka, berriz, eztanda,
bere zerura joan zela
zenbait euskaldun oldartsuren amorekatik,
eta gizon zaharrak eta helduak
ganoraz irri egiten dute
honetaz batera;
bai, aipatzen dio maisu ohiak,
ahaztea nolabait hilik egotea duk,
eta biak, hainbeste gauzetan bezala,
ados daude,
norbera bere erara,
gaur munduko gela txiki honetan,
garai nazkante haiek
ez direla itzuli behar...
Orain eguzki samurra,
hodei traidore batek estalita,
desagertu egin da
eta hotzak dago
munduko egongela honetan
eta euria mehatxatzen dik,
dio postari ohiak,
etxera noak badaezpada ere,
eta biek, bostekoa emanda,
elkarri agur egiten diote,
beste bat arte;
hondarrean lau tanta soilik izan dira
eta lurra urez gose dago oraindik.

Malerreka

Mendia, mendialdea, bi erreka,
ibaia, Bidasoa, geurea,
hemen nagon, andre kutuna,
hirekin berriro hitz egin nahian,
aspaldiko partez
egin genuenaren antzera;
iragan ditun betirako
zurrumbilo zital eta doilor haiek,
mamu beltzen asmakeria
likits, lohi, zikin haiek,
aratza dun orain dena,
ur garbia edaten ari gaitun
eta hondarreko euri bizkorra ari din,

eta berdozten ari gaitun
ardo gorri naparra
pixka bat edanez gero;
barruko kontuak
ateratzen ari ditun
era natural batez
jaiotza berria dun oraingoa,
inolako jainkorik gabe,
inolako handiputz,
fetitxerik gabe,
hi eta biok konpainia ederrean,
inguru umel eta zoragarri honetan,
planeta bira eta bira dabilenean,
txakur lerdoak
ozen zaunka egiten ari direnean,
eta geuk harrizko erretilu batean
eskaintzen dinagu
hil berria den
txerri horiaren buru eskergea,
begirune, itzal osoz,
errege burugaberen batek
jan dezala,
on egin dizula!
Udaberria jadanik denez gero,
hartz berria iratzarri dun
hurbil dagoen alderdi hartan,
eta artzainak eta ardi herabeak
beldurtuak omen ditun,
zelatan,
baina gu hemen gauden
seme-alabak zaintzen,
hezten, maitatzen
bihotz bihotzez,
dolamenez ere,
eta ez zekinagu
zein izanen den euren geroa
bizitzea dagokigun aro zoro honetan,
zein izanen den guztiontzako
etorkizun ilun eta goibel hori;
hala ere oraintxe bertan
arturratzen ari dun ibai ondoan,
mendialde eder honetan,
eta tristerik ez dagoen
geure esperantza
argitzen ari dun, laztana,
nolabait lagun berriak ditugulako,
asmo zaharrak
berpizten ari direlako
eta, hainbeste izar eta galaxia
kontatzeaz asperturik izanez gero,

familiako eguzkiaren zain
gauden goiztiri alai honetan,
eta egun ez bada agertzen,
lasai, bihar edo etzidamu izanen dun,
eta bitartean bizi gaitezen
barneko bake eta baretasunean,
uzten badigute bederen,
Bidasoa lagun.

Hamabi

Karrikaz, karrika dabil gizona,
etxetik jada ihes egiten ez duen haurra,
hamabi urrats, hamabi kale,
hamabi omen ziren apostolu haiek
eta “Hamabi” izena duen tabernan
pausatu da gizonezko nekatua
zer edo zer edateko asmoz,
hainbeste ibili ondoren
izugarritzko egarria duelako;
lehen ilun, ia argirik gabeko
tokia zen taberna hori,
baina orain ongi apainduta,
lore sorta batekin eta guzti dute;
hamabi duk dozena bat,
pentsatzen du gizonak,
berebiziko freskagarria
edaten duen artean,
dozena bat desira,
dozena bat amets,
dozena bat zigarrokin,
dozena bat oinaze,
eta amodioa infinitua ote?
Ala dozenaka ere hartu behar?
Itzalak badira panorama honetan,
karantza goibel ezagunak,
ezagun ezezagun akituak,
zer akabatu
behar duten ez dakitenak,
deus gutxi ikasi duten
ikasle ohiak,
besteen begietan,
malkoetan, irrietan
leitzen ere oraindik ez baitakite,
eta gizonak korrok egiten du ozen,
lotsarik gabe,
adi dezaten, primeran,
kontent dagoela dozena honetan,
eta zerbitzari panpoxarekin
solas egiten du

karmaz, berraragipenaz,
jainko izatea zer den
eta nolako itxura
egin behar dugun, badaezpada,
disimulatzen ez dutenen aurrean
kalterik ez izateko moduan;
arratsalde aitzina joan ahala
gizonezkoak, ipurdia ederki jarrita,
gustura entzuten du musika,
bereziki atsegin zaio
Rinozeros talde horrena,
batere basatirik ez dena;
gozo, samur egoten duk hemen,
hausnartzen du gizonak,
baina berandu duk jada,
gaua zetorrek,
jaun anker hori,
non ametsak lokamuts
ez dituk ustekabez bihurtu behar
eta nolabaiteko atsedenaldirik
nahi diat,
hamabi abesti entzun,
hamabi karrika,
hamabi urrats egin,
hamabi apostolu jasanez gero,
dozena bat aski duk, motel!

Istripu bat

Morfeoren amorekatik
bapo lo egin nuen atzo,
maindire garbi eta lizunen artean,
konpainia ederrean,
andre beltz askea nirekin zegoen
ohatze zabal eta sendo honetan;
baina susmo bat neukan,
hirugarrena falta zela, alegia,
eta halaxe izan zen:
arratsaldean erran zidaten ostatuan
ene haragiko semeak
istripu larri bat izan zuela;
gau iluna zenez,
harri koskor bat errepidean,
kotxe madarikatua desbideratu nahian,
joan zen mendi aldera,
irauliz,
baina adiskide on batek
lagundu zion
nahi zuenean lekuko izateko,
ea zer egiten zuen haitz hark

bide erdian goizeko seietan:
nork edo nork hartu behar zuen
erantzukizunik
matxura itzela ordaintzearren,
errudunen batek edo auskalo nork;
berriaz jabetu bezain pronto
joan nintzen mutilarengana
eta han zegoen etzanda,
lasai, pixka bat izorratuta,
baina arrazoi osoz
azaldu zidan istripuarena,
etsituta,
kotxeak gurpildun hilkutxak direla
eta ez direla beharrezkoak
planeta familiar honetako bideetan
ibiltzeko konbentziturik;
telebistaren aurrean
irri egin genuen franko
“zazpi bizitza” telesail zozo hori
ikusi eta entzuten elkarrekin
etxe zahar hartan ilundu arte;
hiruak berpiztu ginen atzo,
aita, semea eta andre beltza,
trinitate berria, lagun minak.

Lainoa mendian

Ene aspaldiko lantokira joan naiz
gaur berriz fitxatzera;
nahiz eta betebeharririk ez izan
mania bat da hori,
aspaldiko sasoi onak eta ez hain onak
nolabait gaurkotu, oroitu nahian;
laino ederra ikusten zen mendian
baina ongi egoten zen barruan,
berogailua pizturik zegoelako
eta dinamitazko txokolatea bazen
gorputz osoa berotzeko moduan,
eguzkiaren indarra hartzeko era berezia,
eta laguna zen han,
beti bezala, erne, zirikatzaile,
azkar, errime,
nirekin maiz bere burua
argi ikusten duen gizona;
sortu zen solasaldi franko geure artean,
eta irri, algara, ironiak erruz,
eta itzulpenaren itzulpenen bat ere bai
ederki apaindu eta euskaratua,
mendiko semeak hornitua,
hemengo eta hango garbitzaileen

kezka batzuk direla eta,
Finlandiako musika izoztuak
samurki jotzen zuen bitartean;
eta gogoratu nuen suomiarrak
aske bizi direla denok dakigun
1917. urte zoriontsu horren geroztik
herri gorri haren amoreakatik...
Lainoa zen ene mendi tontorrean
eta han panorama ikusgarria zen:
babuinoak Afrikan jaten, edaten,
baina pertsona anitzek ez,
eta gosez hiltzen ari dira oraindik orain
eta eritasun sendaezinak jota,
Asiako mila urteko kultura zaharrak
mendebaldean halabeharrez
onartuta izan beharrak,
geureak baino indartsuagoak direlako,
jakintsu, zuhur, apal, bizirik diraute,
eta petroliorik dute batzuek,
onerako zorionez,
txarrerako tamalez.
Eta Amerikan, zer?
Ez dakit zenbat Amerika diren,
bat bakarrik beti inposatu nahian
dabiltza ergel, krudel haiek,
baina badakigu
mesokrazia zaharkitu horretan
bizi diren akabatzeke zorian
dagoen inperio horren aurka
ia mundu guztia
altxatzeko moduan dagoela,
asperturik gara,
gogaiturik gara,
kopetaraino benetan,
hondamendi berri baten zain
gaude zapalduok,
Urri gozo eta garratzaren esperoan,
lasai, amigo,
txerriaren ordua ailegatu da trostan,
bitartean Karibe itsasoan
badago uharte martxoso bat
poloak urtzen diren artean,
eta urlehorrean gara gu anfibioak,
izaki berriak,
gorroto infinituan, amodio iraunkorrean,
eternalki bizirik irauten;
eta Europa zahar honetan
zezen eta behi eroak hiltzen ari dira
natura oldartuta sentitzen delako,
eta txerpolari beltzak

hemen bakean bizi ezin direlako;
eta euskal seme-alabak
eskuzabalak dira nolabait,
lagunekin lagun,
adiskideekin adiskidea,
eta arerioekin arerio ere,
bere txoko propioa
planeta honetan bereganatu nahian:
horretan gabiltza
herri urrats berriak sortzen,
oinez, korrika, kilometroak egiten,
geure barrukoak jalgitzen,
lehertzen, dantzatzen,
irrintzi, ulu egiten,
alaitasun zoroaz, su eta gar,
aspaldiko partez,
konekta zaitetz.

Txapela jantzi eta ibili munduan

Gaur ostegunean hasiko dut
asteko gaupasa, asteburuko besta,
hiru egunetako besta berezi hori,
hiru monoteista horien lagun
nolabait sentitzen naizelako:
hasteko, ostiralean ospatuko dut
besta musulmanekin,
eta eginen dut bidaia luze bat,
turista gisa,
pasaportetik gabeko atzerritar,
Ala handia gurtzen duten
alderdi urratu, odoltsu,
zorientsu, batzuk aberats, haietara,
ez dakit oso ongi hegazkinez
ala elektrizitatearen abiaduraren arabera,
eta solas eginen dut patxadan
hango jende zahar eta gaztearekin
lengoaia komun batez,
gerraz eta bakeaz,
irtenbide duinen bat aurkitu nahian,
apokalipsiaren eguna oraindik
iritsi ez delakoan nago,
eta ziur nago haiek
nirekin bat datozela, momentuz,
giza jende zuhur eta ikasia delako,
nahiz eta suizida alaiak eduki;
euren musika aditu eta dantzatuko dut
emakume lirainez inguratuta,
eskuak estu loturik,
burutik burura doan kanturen bat

pozik abestuko dugu suaren ondoan,
eta gauez, izartegian,
izar gorri-zuri-urdirin aspergarri horiek
desagertuak izanen dira,
eta zero ilunean antzemanen dugu
ilargi propioaren puskaren bat;
larunbatean judu sentituko naiz
eta bigarren mundu gerraren
inguruko film frantses bat ikusiko dut,
egunkarian iragarrita zegoen
neska espioi baten istorio bitxia,
gerra baino maitasunaren bila
omen dabilena, ausarta bera;
judu sionista horiekin
ez dut bestarik eginen,
eta agian Kafka edo Spinoza
judu haiekin mintzatu behar dut
ea euren hilobitik ateratzen diren
eta gaurko munduan
gertatzen ari denaz
zer edo zer berri ulertzen dudan,
hildakoan arimak betiere,
nahitaez, edaten ari garelako;
eta igandean mendi aldera joanen naiz,
andre beltzak lagunduta,
euskararen bila,
sinestuna nolabait naizelako,
eta han elkartuko gara
milaka fededun
laku txiki baten inguruan,
ibiltzen, edaten eta jaten,
betiko besta eta aldarrikapenetan,
esperantza tristea
egun batean bederen
ahaztu nahian, eguzkia lagun.
Eta astelehenean, bestondo,
hainbeste besta izanda gero,
oporretara joanen naiz
denboraldi batez
etxean dudan adiskidearekin.
Txapela jantzi eta ibili munduan.

Eta gero gerokoa

Gaur mintzatuko naiz
antzinako maisuen arabera,
parabola baten bitartez,
Prahako oinaztu, goibel,
ironiko haren modura,
non K. agrimentsore nahasi hura

hurbildu baitzen gaztelu fantasma hartara
jabe ikusezin baten bila,
eta aurkitu zuen, benetan,
zenbait kezka eta xelebrequeria
jasan ondoren, egiatan,
munduan ez zela jada jainkorik
bere burua sufrtua ez balitz,
eta orain, merezimendu osoz,
bere paper zaharkitu haiek
bizirik daude
hilerri judu duin batean,
baina maisua ez da berriz
bisitatzera joaten
buruz dakielako
maisua zahar eta triste hark
pentsatu, irudikatu, idatzitako guztia,
poeta hipokondriako haren kezka nagusiak.
Eta orain horrela mintzo da:
bazen behin mutil heldu bat,
ongi hornitua, beltzarana,
hiriburuan jaioa,
eta txikitatik munduan zehar ibilia
zer edo zer ikasi nahian,
eta turista izan zen Erroman,
Bartzelonan, Madrilan, Parisen,
Venezian, Amsterdaman,
Bilbon, Florentzian...
eta egun batez
hegazkin exkalibur batean
bidaiatu zen Londresera,
baina, egia erran,
ez zitzaion sobera gustatu;
aspaldiko partez erabaki zuen
aita izatea
eta elkartu zen ezagutzen zuen
emakume zintzo batekin,
eta logela gorri batean
egin zuten seme kutun bat,
hazi ederreko ezpal lerdana,
Espainiako hiriburu itzel horretan,
baina asperturik zegoen han
eta familiarekin itzuli zen hona,
eta hemen, ordura arte atzerritarra
zela ohartu eta gero
gartsu ikasi zuen
hemengo hizkuntza propioa,
eta 33 urte zituelarik
bihurtu zen poeta-edo,
aurkitutako lengoaia eta kultura berrian
zenbait bertsoz apaindu zuen burua,

baina bera izatez maisua zen,
eskolako maisu arrunta eta ikasia,
eta hala ibili zen mendialdean
zenbait haur alfabetatu nahian,
eta lan nekoso horretan
eri jarri zen gizona,
zoratu, burua lehertu arte;
orain eskolarik gabeko maisua da,
eta Benidorm zoriontsu honetan
ibili, paseatu, airea hartu,
murgildu, hegan egiten du,
egunero eguzki propioaz gozatuz,
aske, sano, bizkor,
bere bizitzaren jaun eta jabe,
jadanik eskolatua den irakasle berria.
Eta gero gerokoa.

Mila pauso eta bat

Mila gau eta bat,
hainbeste urtetan,
ipuinak kontatzen
iragan eta gero,
gizon helduak erabaki du,
zahartu baino lehen,
errealitate hutsa bizitzea,
instantez instante bizirik irautea,
pasio tristerik gabe,
hurridetasun berri batean,
badakielako
planeta zoragarri hau
maitatzeko modukoa dela;
halaxe lo egin du gau honetan,
bake santuan,
amets eta lokamutsik gabe,
hildakoen erromantizismoa
xurgatuz,
ikasien arrazoia garaituz,
eta esnatzean erran du
“ni neu naiz”
eta ene zirkunstantziak,
mila pauso eta kito,
mila ipuin eta bat aski da,
justizia denaz gainerik,
askatasunaren bila
gabiltzan bitartean,
oraindik geratzen diren
hainbeste burugogor
konbentzitu beharrean,
solas zorrotzean,

negoziazio estuan,
ea ikasten duten
iraultza, behin betikoa,
erremediorik gabe
ailegatuko dela,
eta munduko zapaldu
eta behartsu guztiak
benetan ohartu direla.
Kito.

EGUNETAKO APARRA

Aldarria

Aldarria ez da eten,
oihu zaharrak entzuten ari dira,
behin eta berriz,
erlatsak dira eztarriak,
baina denek ez dute
batera garrasi egiten
eta disonante suertatzen da musika;
euskal irrintzia
ozen aditzen da
mendiz mendi,
bailaraz bailara,
karrikaz karrika,
etxez etxe,
eta arerioek nahi dute estali
sortzen diren hainbeste istilu,
edozein moduz,
ahotsa gero eta gehiago altxatuz,
mehatxatuz, xantaia eginez;
hala ere ez gaituzte beldurtzen
geure helmuga argi dugulako
eta, nahiz eta orain oztopo anitz izan,
ailegatzeko zorian gaude;
askatasun zaindua edo mendekotasuna
libertate hutsa
goiz izanen da geurea,
aldarria eteten ez den bitartean.

Ispilua

Ispiluan islatzen da
ene gaurko karantza tristea.
Egun lainotsua delako
ala ene maitaleak alde egin duelako?
Ez dakit.

Aurpegia garbitu ondoren
jakinen dut ziur aski;
ene begi txikiak irekiko dira
lo eginez gero,
eta galdetuko diot ispiluari
zer moduz dagoen
ene aurrean agertzen den
irudi estimatu hori;
bi gara momentu horretan
eta ez da bakarrizketa nirea jadanik;
galdetzen diot ene maiteari buruz
eta bere erantzuna
irriño ironiko eta goibel bat da:
merezi izan duzu, alde batetik,
andreak ezin baitzuen
hainbeste istilu jasan,
bestetik, zuen arteko amodioa
amaituta zelako,
nahiz eta zuk onartu ez;
denbora batez biziko zara
ispiluko irudiarekin solasean,
dio ene lagun maitagarriak,
terapia onuragarri gisa,
eta bi izanen gara konpainian
txarrerako eta onerako.

Herioak hartu arte

Heriotzarekin egin dut topo,
makillaturik zegoen,
zuriz jantzita,
gorpu bare hartan
ez zen sufrimendurik sumatzen,
bakea baizik;
bizitza luzearen gorabeherak
ezin ziren asmatu
aurpegiera apaindu hartan,
bakarrik hurko bizidunek
kontatzen ahal dute
herioak hartu arte;
orain hilkutxan dago
atseden hartzen,
eta erraten da
bidaia batentzako prest dagoela,
baina hori ez da batere egia,
bukatu baita bere ibilbidea
hementxe bertan,
gure artean;
bihar erre egingen dute
eta bere errautsak

sakabanatuko dituzte mendian
naturarekin bat eginez,
berak nahi zuen bezala;
lur emankorrek onartuko ditu
bizitza oparo baten gorpuzkinak,
isilik, otoitzik gabe,
makillajerik gabe.

Bakarrizketa

Hotza dago ene bihotza,
eskuak dardarka
eta burua tente;
ene etxea hutsik dago,
kanpoan euria eta euria;
sartuko naiz ene bakardadean
lagunen bat asmatu nahian,
eta solas egingen dut
aurrez aurre, isilik,
burutik burura,
sekretupean,
eta ahots anitz elkartuko dira
kantu ezkutu honetan:
amodiozko hitz eztiak,
iraganekoak eta oraingoak,
ohiko oihi eta aldarriak,
oinazezkoak eta alaiak,
zurrumurru tristeak,
pozaren hotsak,
esperantzaren bozak,
guztiek dute lekuren bat
gaurko solasaldian,
denak dira lagunak orain
hutsik dagoen ene etxean,
hotza dagoen ene bihotzean,
burua tente dagoenean.

Mozart

“Desesperazioa kimera bat da.
Hori da esperantzaren antzekoa egiten duena” Sándor Petofi.

Mozarten musika entzuten den bitartean
ematen du dena lasai dagoela,
mundua bakean dagoela behingoz,
gatazkarik ez dagoela hemen,
baina ilusio bat da hori
babesleku zoriontsu honetan:
pianoaren nota maitagarriek
ezin dituzte ahaztarazi gela honetan

kanpoko miseriak eta lazturak,
malkoak, penak eta tristurak;
asteburu honetan ehun etorkinek
galdu dute euren bizitza
Afrikatik Europara itsasotik,
edozein moduz,
pasatu nahian,
eta azken urteotan milaka
hil egin dira ahalegin horretan,
balizko paradisia aurkitzeko asmoz;
Mozarten musika entzuten denean
mundua ez dago bakean.

Hitzen itxura

Maitasuna egin dugu
zetazko maindireen artean;
belusezko harriaren gainean
hartu zaitut deblauki
eta gure gorputzak estutu dira
laztan anitzetan;
lagun hurkoak dira nire ezpainak
zure larruazal maitagarrian;
gure mingainak elkartzen dira
laguntasun heze batean
eta hatzek ibilbide zehatzak dituzte
haran eta muinoetan zehar;
andre maitea, ukitu duzu ene bihotza
eta bizitza leundu da niretzat;
gure artean gatazkak bukatu dira
kanpoan gerrek dirautela;
gaur amodioa egin dugu,
isilik, zaratarik gabe,
baina maindireak ez ziren zetazkoak,
belusik ere ez zegoen,
berdin da,
hori da poemaren hasiera apaintzeko...
Orduan, poema osoa itxurazkoa al da?
Ez, inolaz ere.
Ez da egia hutsa, hitzek bere itxura
izan behar dutelako,
eta horrela haien bidez
egiaren bat antzematen dugu:
laztanak larruazal maitagarrian,
mingainak elkartuta laguntasun hezean,
hatzek bide zehatzak aurkitzen dituzte
haran eta muinoetan zehar,
zaratarik gabeko amodio isila
amoranteen arteko gatazkak bukatu direnean.

Aste Santua (erruki gabe)

Itzalek estali zuten lurra,
sua, odola, oinazea, mina,
jainko baten semea
utzi omen zion sufritzeari,
eta bi mila urte iragan ondoren
ospatzen da gurean
sineskortasun handiz;
gur egiten dira iluntasuna,
sufrimendua, sakrifizioa,
morea, beltza den zapi urratua,
iltze odoleztatuak
merke saltzen dira dendetan
eta gurutze madarikatua
onartzen da ikur loriatsu bezala,
ergelkeria menperatzailearen neurrira,
pantaila handietan ere pasioa
garesti goresten den artean:
sua, odola, oinazea, mina,
jainko baten semeak
ez gaitu bakean uzten,
hil dadila behin betiko,
erruki gabe.

Bizirik

Udaberriak ekarri dit notizia,
bizirik nago oraindik,
neguko letargia ez da heriotzarik izan:
denbora hartan nire zentzumenak
amets kamutsetan zeuden,
ia hilik,
baina orain suspertu naiz
natura osoa bezainbeste;
alai nago eta kontent
maitasunak zeru berri bat
antzeman duelako;
ez dago aladurarentzako lekurik
kulparik ez dagoelako;
errugabea naiz eta froga dezaket
lagunen eta etsaien aurrean,
baina behar dut epaiketa bidezko,
inpartzial eta egokia
emakumezko eta gizonezko zintzoen
iritzi argia jakiteko:
aitzakiarik gabe
nahi dut agertu
jendearen artean
neguko letargia iragan delako.

Burdinazko mamuak

Burdinazko mamuek sortzen dituzte
nire ohiko haluzinazioak,
noizbehinka jainko sentitzen naiz
gizakien artean,
harro eta zoriontsu,
ibiltari ausarta naiz
bide arriskutsuetan
eta lagun arrotzak bilatzen ditut
bakarrik ez egotearren;
zerua ia beti irekitzen da nire aurrean,
baina noizbait ere
irudi beldurgarriak sortzen zaizkit,
behin betiko heriotzarenak...
Eldarnioek naramate
lurralde preziatuetara,
musika berriak soinu egiten duenean,
zelaigune zabalak,
itsas sakonak,
oihan hostotsuak,
basamortu infinituak,
eta gaua,
lo ezineko gau guztiak...
Azkenean, leherketa handiagoa
izan baino lehen
mugaren bat onartu behar dut,
halabeharrez,
burdinazko mamuak baretzeko
mundua oraindik akitzen ez delako.

Hiraren eguna (Tsunami)

Hiraren eguna ote?
Hodeiak haserretu dira,
edo itsasoa, edo lurra?
Natura itsua al da?
Maitasuna itsua dela diote.
Erotu dira elementuak
eta itsutu gaituzte.
Haztamuka gabilta,
paretak, gorputzak,
buruak, zuloak,
harriak, zuhaitzak,
errekak haztatzen.
Saminaren eguna da.
Porrotaren eguna.
Inurriak gara
baso erraldoi honetan

noraezean ibiltzen,
erregina hil digutelako.
Parrizidio!
Oihu egiten dugu
milaka hiltzen garen bitartean.
Hiraren eguna da
Natura itsua delako.
Noizbait. Nonbait.

Bidaiak

Bidaiak onak dira gero itzultzeko,
bestela galtzen da
etxe propioaren zantzua;
geure erroak luzeak dira,
sendoak, lurrean iltzatuak
haizearen besoak
ez botatzeko modukoak,
baina noizbehinka birlandatzea
onuragarria da naturarentzat;
nire lagunari gustatzen zaio bidaiatzea,
baina ez urteroko oporretan,
ohikoa denez,
bakarrik noizbehinka baizik,
geure ingurua ezagutzen ez dugula
berak dioenez,
urrutira joan, presaka ibili,
apenas gozatu, laster bueltatzeko,
eta hemen badugu gure inguruetan
ezagutzen ez ditugun
hainbeste gauza;
arrazoia du nire lagunak:
bidaiak onak dira
gero, zorionez,
etxera itzultzen delako.

Bizitzari ausikiz

Bizitzari egunero
ausikitzen diogu puska bat,
erremediorik gabe,
erruki gabe,
denbora ez da gelditzen
itsasoko uraren antzera,
baina geratzen dira oroitzapenak,
bizi garelako oroimena,
geure historia propioa,
urratsez urrats,
zauriz zauri,
pozez poz,

ausikiz ausiki egindakoa,
eta haragiak, hezurrek eta odolak
osatzen dute gorputz berria,
egunez egun
sortzen eta gutxitzen,
hilezkor bezala bizitzen, ordea,
eta horrela heriotza on bat prestatzen,
damurik gabeko askatasunaz
zelaiko haizearen antzera.

Haurdunak

Karrikan ikusten ditut
tamaina nabarietako sabel eder horiek,
esperantzagarriak, erotikoak ere,
promesa baten iragarleak,
bizi baten presentzia borobilak;
esku maitagarriek haztatu ohi dute
altxorra gordetzen duen habia
tripa ukitzen dutenean;
ematen du amak
nahi duela ziurtatu
hor jarraitzen duela
bere fruitu maitatua
eta hazten ari dela
arrisku guztien aurka;
gaur emakume horren aurpegian
nabaritzen dut ere amatasuna,
nolabaiteko osotasun polit bat,
ezpainetan, masailetan, begietan,
eta agian berak usteko du
itsusia dela orain,
baina oso ongi dagoela
errateko zorian nago
eta musu eman nahi diodala...
sabelean,
bere haurra izateagatik
zoriontzeko.

Horizonteak besarkatzen nau

Horizonteak besarkatzen nau
etorkizuna nabarmenegi egiten denean,
eta ez dakit geroa
oraintxe bertan den
zerua bortizki sartzen delako
nire oraingoan,
bere arma guztiekin,
bere zalantza guztiekin,
mugarik gabeko zapore eztiarekin,

eztiegia;
orduak estimatzen dut distantzia,
oraindik gozatzeko
ematen didaten denbora,
lanbroen artean;
hala ere ez dut atzerapenik nahi;
noizbehinka hilezkortasunarekin
amets egin dudak arren,
ez dut nahi beharrezko denbora baino,
horizonteak besarkatzen naudelako
etorkizuna nabarmenegi egiten denean.

Aurrerapausoak

Aurrera noa asmo zigortuekin,
aldatzeko esperantza
oraindik dagoenean
beste mundu baten
loreen eta laudorioen artean,
bidaia lagun gero eta ezagunago,
gero eta zaharragoekin;
atzera begiratzea
ez da deliturik jada,
baina ez dut tentazio horretan
hain erraz erori nahi,
duintasunagatik:
hildakoak joan dira
eta ez dira itzuliko
ezpada guri gogoratzeko
oraindik promesa anitz
betetzeke daudela,
orain dela gutxi jaiotako hurrek
etorkizun justu bat merezi dutela,
etxe bat eskatzen duten amodioak,
bandera bat
aldarrikatzen duten askatasunak
oraindik direla;
aurrerapausoak, beti aurrerapausoak
behin betiko gelditu arte
eta bat egitea basoarekin,
ibaiekin, mendiekin, itsasoarekin
eta gure aurrean
izan diren guztiekin.

Musika, beti lagun

Musika, beti lagun,
sentsazio ederrak,
bideak elkartzen dira
definizio gabeko puntu batean,

non soinu asmatuak
natura imitatzen baitu
mila moduz;
musika, lagun adikorra,
dantzatzeko edo maitatzeko,
adierazteko
sentimendurik nobleenak,
edo, sinpleki,
nork bere burua
beste unibertso batera
eramaten uzteko;
musika, jainkoen uzta,
isiltasuna apaintzen da
soinudun koloreez
eta animoa irteten
edo sartzen da
erritmo zehatz batean
entzumenak gorputz osoa
menperatzen duenean;
musika, errealitate desberdinetara
esku irekiak,
beso zabalak,
musu atsegina
edo zaplastako dramatikoak,
musika, beti lagun.

Irribarre batez

Amesgaizto batetik atera naiz,
arrastoak badira,
baina zauri larririk ez,
zantzuak badira,
baina orbain nabarmenik ez:
ia dena gogoratzen dut,
zehaztasunez,
amildegiak, mamuak,
etsaiak eta lagunak,
itxurak, oihuak,
non itzalen munduak
gainditzen baitzuen
argiaren eremua;
noizbait argitsuegia zen itzala,
irudimenak, lilurak,
begitazioak eta ilusioak
serioski hartuak,
narrazio luze batez jarraituak,
gauetz eta egunez,
arrazoia eremu irristakor batean
sartuta dagoenean;
eta orain beldur naiz

berrero errepikatzea
marea gora bezalako amesgaiztoa,
baina erne nago
loaldi eder batean
non mamuak eta jainko itxuratiak
ez baitira batere kabitzen
ene barruan,
oroitzapen zaharrak ez badira
irribarre batez.

Elkartze bat

Arratsalde honetan elkartu gara
lagun batzuk,
intimitean,
giro abegikorrean,
udaberria da
eta bero dago kanpoan,
baina etxe barruan epel;
gaitzaren eta onaren inguruan
erruz mintzatu gara,
lasai eta irri egiten,
umore onez,
penak eta oinazeak
hemendik at daudelako;
gaiztoak besteak dira,
gora gu eta gutarrak,
aipatu dugu erabat konbentzituta
ardo gozoa edaten;
bat-batean trumoiak entzuten dira
eta euria egiten hasi du gogor
solasaldia eten eginez,
jakin-minez kanpora begira
gaude guztiok orain,
eta eguraldia bihurtzen da
gai nagusi,
denona bezala,
natura jan eta jabe
den bitartean.

Harriduraren zentzua

Harriduraren zentzua ez zait agortzen
giza miseria handia delako,
oraindik, gure artean;
hementxe dagoen infernuko ateak
irekita dauden denontzat,
barneko sufrimenduak mehatxatzen gaitu,
mugarik gabe,
oso hauskorak garelako

eta zoriona ez da doan
banatzen den opari prestua,
ziur aski;
munduan pairatzen diren gerrak
geureak egiten ditugulako,
noizbait, nolabait,
eta noren alde gauden
ziur ez dakigu gehienetan
berriak manipulatzeko diren artean
bakea asmo nagusi bilakatuz,
baina ez injustiziaren gainetik:
hor dago koska,
anitzetan hautatu behar dugula
eta ezin,
sentimenduak zatituta izanik;
orduak ixten gara
oskol eder batean
azken babesaren bila,
zorion posible bat eske,
atsekabea baztertu nahian,
harriduraren zentzuari utzi gabe.

Kazetari gardunak dio

Kazetari gardunak iragarri du
galsoroetan galeperren kantua
ez dela jadanik entzuten
txori horiek izukor
bihurtu direlako;
kazetari gardunak jakinarazi du
etxeke egongela huts dagoela
haurrek jazarpena sufritzen dutelako
telebista itzaliz gero;
kazetari gardunak erran du
kazkabarra eginen duela
azukre-kozkorrak urtu direnez gero
hodeiak mingostu direlako;
kazetari gardunak jakintzat hartu du
erlojuen segundo-orratzek
ez dutela jada aurrera eginen
geldirik daudelako
maitasun mezuak igorritik;
kazetari gardunak dio
ohiko txerpolariak
ez direla herrira etorriko
euren produktuak hondatu direlako
ekaitzarekin bat lohian erabat galduz;
kazetari gardenak aditzera eman du
alarma egoeran gaudela
ihintza desagertuko delako

horri buruzko poemak bukatuz.

Putzak hartu ditu horrek

Putzak hartu ditu horrek
arriskutik at dagoenean,
setio egoera bukatu baita
eta mitxoletak ez daude;
andre luzangak
ez zaizkio horri atsegin
kurbak nahiago dituelako
emakumezkoengan,
pauma bat sentitzen denean,
konkistatzaile, harro hutsaren irudia da
eta ez du lehiarik onartzen;
filmeko protagonista bera da
eta besteak konpartsa bakarrik,
eszena jakin bateko figuranteak;
hori ez da oraindik konturatu
liliak desagertu direla aspaldian
eta erleak hiltzen ari direla
inork ez dielako amoroski xuxurlatzen
putzak hartu dituelako.

Masta, eutsi goiari!

Masta, eutsi goiari!
Inork erran ahal dezan
etsiturik jada zaudenik:
haizeak belak gogor inarrosten ditu
karabela zaharra
itsas handian
kulunkatzen denean,
badago norabide zehatza,
badira marinel iaioak
ekaitz anitzetan ibilitakoak,
badago lema eta lemazaina
eta batez ere kapitaina,
gizon burutsu eta zuhurra.
Masta, eutsi goiari!

Eskerrak biziari

Mehatxatzen nauten
gaiztakeria guztien aurrean,
kolpatzen nauten
mailu pozoitsu guztien kontra,
asaldatzen nauten
eldarnio madarikatu guztien aurka,
poza ematen didaten

gauza txiki guztiengatik
biziari eskerrak,
ez inongo jaikori:
ene odolari, giharrei,
ene bihotzari, neuroigorleei,
ene lagunei eta naturari
esker mila
egunero erraten dut
ohetik jaikitzean
eta arnasa hartzean;
atseginez, ganoraz diot
eskerrak
elkartasunari,
eskuzabaltasunari,
bizirik sentitzen naizelako
burrunba horien barruan;
zirimola hauen barnean,
tximista guztien azpitik,
pozik eta zoriontsu,
biziari esker onekoa.

Erleak

Erlauntzak husten ari dira
eta inork ez daki zergatik.
Akaso erlatxoriek ba al dute kulparik?
Ez dut uste.
Adituren batek adierazi du
erle maratzak unatuta daudela
lan egitea nekagarria delako
eta hasi direla
beste egoera bat amesten:
adibidez, greba zer den
ikasi dute azken denboraldian
hainbeste joan-etorri eginez gero;
lanuztearen zurrumurrua
zabaltzen ari da erlekumez erlekume
eta erabaki dute turismo egitea
bizitzeko geratzen zaien denbora gutxian,
horrela beste moduz gozatu,
herrialde berriak ezagutu,
behin eta berriz noraezean ibiliz;
erlezainak kezkatuta omen daude
egoera honengatik
eta pentsatu dute nazioarteko mailan
erleen joera berria ikertzea
ordena pixka bat jartzeko moduan,
baina erlauntzak husten ari dira
eta inork ez daki zergatik.
Ni, momentuz, aditu horren hipotesiarekin bat nator.

Sugandila

Sugandilak ihes egin dit
zanpatzen saiatu naizenean,
baina isatsa galdu du;
ezkutatu da zuhur eta azkar
eta ni eguzkiari so geratu naiz
ibai ertzetik paseatzen jarraituz;
bidetik dator txirrindulari bat
eta baztertu naiz
pasatzen uzteko, badaezpada;
ibaiko ura uher dator
udaberri umel honetan;
agurtzen dut lagun bat
eta interesatuta galdetzen diot
gaixorik dagoen
bere arrebari buruz:
ospitalean dagoela dio
eta nik “egunen batean bisitatzera
joanen nauk, zaindu hire burua”,
eta berak galdetu dit ere
nire familiari buruz
nik semearen osasuna laburaipatuz:
“orain oso ongi zagok,
atzerrian bizi duk pozik
eta musika egiten jarraitzen dik”...
Bidean ezagutzen ez dudan jendea
ez dut agurtzen,
baina mendiko bakardadean,
ohartzen naiz,
ohitura bat dela
ibiltarien artean hori egitea
natura bera partekatzeko moduan;
bero jadanik eginez,
nesken eta emakumeen eskoteek
uzten dituzte ederresten eta gozatzen
leku ikusgarri horiek
eta disimuloz hara
zuzentzen dut nire begirada;
orain aurrean dagoen
ipurdi eder batek erakartzen nau
eta nire ondoan
beste sugandila bat pausatu da,
baina ez naiz zanpatzen saiatu.

Begi berdeak

Hire begi berdeek erakarri ninditenan,
argiak ditun, egiazaleak;

algara egiten dun
eta hire begi ederrak
zabal-zabalik mantentzen ditun,
munduko haizea irentsi nahian,
bizitzaren poza xurgatuz;
maitea, gauza anitz irakurri ditinat
begi argi eta polit horien bidez:
elkartasunak eta iruzurrak,
alaitasunak eta penak,
gogoratzeko eta ahazteko modukoak;
erne izan, borrokatzeko ordua
ez dun iragan,
etsaiak etxeko atarian
erasotzeko prest beti daudelako;
orain gutxi elkartu gaitun
eta solas egiten ari garen bitartean
hire begi berdeei so egiten zienat
geure arteko konfiantza handituz;
hasi gaitun ezpainetan musuka
eta han eta hemen laztantzen;
pasio lasaia dun geurea, kutuna.

Telefono-deia

“Maitatua naiz, beraz banaiz” W. H. Auden

Telefonoak jotzen du;
“bai” diot, baina okertu dira berriro
eta ematen ditut azalpenak;
ez nau gogaitzen
semearen deia itxaroten dudalako
eta halaxe da geroxeago:
urrun dago azken aldian,
baina bere ahotsa entzutean
irudikatzen dut nire ondoan,
sentitzen dut hurbil,
lerden, lirain, osasuntsua;
galdetzen diot bere bizimoduari buruz
eta kontatzen dit konfiantzaz,
baina laburki, nola moldatzen den;
egin behar dizkiot galdera zehatzak
informazioa jasotzeko,
bere lagunez, zaletasunez, bere amaz,
bilatutako lanaz, oporraldiaz,
udan egun batzuk nirekin
igarotzera etortzeko asmotan dagoela,
hasi dela itsasoan bainatzen
han bero jada egiten duelako,
kontent bizi dela atzerrian
eta ziur aski bi urte gehiago

geratuko dela han;
maitagarri eta irri egiten ere
entzuten ditu nire berriak,
eguneratzen dut Euskal Herriko
gaurkotasun albisteei buruz,
politikaz batez ere,
eta mintzatzen natzaio pixka bat
nik irakurritako liburuez,
ikusitako filmez, familiaz;
maitea, seme kutuna,
deitzen diot noizbait,
eta berak niri “maite zaitut”
telefonoz inoiz ez erran arren
bere deiak maitasun-ahots argiak
dira niretzat.

Sugeak

Zohardiaren zorduna naiz
eta kriskitin-sugeak
ez nau beldurtzen
hipnotizatuta baitaukat
saskiaren hondoan;
orain ez nau ziztatzen,
hitz zaharberriak
zurrut egiten ditudalako
kantu apal baten antzera;
dena dela zogia naiz
suge pozoidunekin
traidoreak baitira
saskiaren hondoan
heziturik ez daudenean;
gaur zohardiaren magalpean
suge guztiak irten dira
eguzkia agurtzearren.

“Voyeur”

Presaka dabilen emakumea
nire ondotik pasatzen da
ipurdia alde batera eta bestera
ederki mugitzen,
kuleroa nabaritzen zaio
pixka bat praken azpian,
eta nik begia gozatzen dut
“voyeur” xume baten antzera,
gizonezkoek eta emakumezkoek ere
barruan eramaten dugun zera hori,
natura gizakiengan ederresteko modukoa;
hitz ederrak ozenki erratea

modaz pasatuta zagon, emakume,
baina adierazteko zorian nagon
hire ipurdi hain dotorea
kulunkatzen ikustean,
“mundua bi zati dantzaritan
Zagon banatuta, panpoxa!”.

Iratxoak

Onartu behar dut, zinez,
iratxoak badirela;
nire etxean, nire ondoan,
badago bat bederen
azken denboraldi honetan;
bihurria dela erran dezaket
eta bakean uzten ez nauena:
noizbehinka mesederen bat
egiten dit, txiki-txikia,
nire alde dagoela
pixka bat adieraztearren,
badira detailetxoak
ustekabeen agertzen direnak,
eta pozten naiz gero
konpainia dudalako,
baina badira nire aurka
noizbait gertatzen diren kontuak,
desagerpenak batez ere,
eta azkenaldian nahiko garrantzitsuak
izan direnak, nabarmenki;
orduak ez dakit zer jarrera hartu,
edo haserretu,
edo kexarik gabe,
natural-natural,
iratxoarekiko ditudan harreman
gazi-gozaok besterik gabe onartu;
kontatzen diet lagunei,
baina ez didate kasurik egiten,
horregatik ez dut nahi
sekretu hau hilobira eraman
eta fede ematen dut hemen.

Neskatxa herrena

Beltzarana da nire auzoko neskatxa,
herren dabilen modua atsegin dut,
graziosoa baita nola mugitzen dituen
ipurmasailak era berezi batez,
nola ibiltzen den
ohi denaren kontra
arraitsu eta lilurapenez;

herabe erantzuten dio nire agurrari,
edo hitz gozoez balakatzen dudanean
eder eta pertxenta delakoan;
liburutegian elkar ikusten dugu
eta erakusten dizkit noizbait
irakurtzen dituen amodiozko nobelak
nik galdetzen diodanean
azalpen xumeak emanez;
gaur, azkenean, gonbidatu dut
kafe bat hartzera,
baina bero anitz eginez gero
freskagarri bat eskatu du,
eta solas egin dugu luzaro
bere gustukoak diren
liburuei buruz,
amodiozko batzuk hain zuzen ere,
eta ulertu dut nobela horiek
ekartzen diotena,
bizinahia, alegia;
orduan, nik ere bizi-poza
sentitu dut neskaxa herrenaren
solasaldi arina entzutean
bere begi arreei so.

Herioa alderrai

“En faço versos como quem morre” Manuel Bandeira

Alderrai dabil herioa
nor harrapatu zain,
jotzen du han,
ukitzen du hor,
astintzen du hemen,
etengabe,
baina ez gara ohitzen
norberaren heriotza
lehenengoa eta bakarra baita,
behin betiko;
hau ulertzea simplea da,
ez dugu onartzen, ordea,
hain erraz,
eta heriotzaren kontra
igarri dira hainbat trikimailu,
eternitatea kasu,
bere errealitate gordina
desitxuratu nahian,
baina bukaera gailentzen da,
behin eta berriz,
filmetan bezala;
alderrai dabil herioa

nor harrapatu zain.

Zezenak

Zezenak entzierroan
beldur omen dira,
horregatik hainbeste korrikalarik
handiesten dituzte,
kemenaren adrenalina
jendaurrean askatzen dute
zoriari desafioa eginez;
batzuetan abere adardunak
erortzen dira,
baina berreskuratu ohi dute aginpidea
berehala altxatu
eta lasterketari ekinez:
adarkada bat hemen,
imintzio bat han,
zapaltze bat hor,
ikuskitun bitxia,
hedabideetako sentsazionalismoa
elikatze modukoa,
hemengo eta kanpokoan
zaletasun berezia
otoitzarekin nahasten dena;
gaur zezen bat
baztertu da taldetik
atzera eginez,
eta eraso egin dio jendeari
batzuk adarkatuz;
larri, oso larri
suertatu da baten bat,
telebistan hainbeste aldiz
errepikatu dutena
Irakeko gerran gertatu diren
atentatuekin batera.

Egunetako aparra

Egunetako aparra ez da oraindik akitzen
eta bada denbora dantzatzeko
maitasuna egin baino lehen,
bada garaia haizeari xuxurlatzeko
bizirik irauten dugun bitartean
ez diogula kantatzeari utziko
eztarria urratzeraino
bizitzarekin erronka handia dugulako;
egunen zerrenda
oraingoz ez da bukatzen,
gaur behintzat,

orduan, profita dezagun
emandako aukerak gozatzeko
bihar agian beranduegi izanen baita;
egin ditzagun, ordea, ohiko gauzak
azken aldia balitz bezala
ganoraz, zorionez, askatasunez,
etorkizunaren seme-alabak baikara,
eta biharamunean esnatzean
itxaroten dugu berriz hastea
egunetako aparra dastatu nahian.

Hatzen artean urtu zitzaizkidan

Hatzen artean urtu zitzaizkidan
emakume harengan nituen esperantzak,
asmoak, ilusioak, grina xumeak:
une gozoak iragan nituen berarekin,
aitortu behar dut
batez ere konpainia atsegina zela
niretzat hainbeste aukeretan,
abegitsua, maitagarria zelako;
baina pentsatzen dut orain
amodioa baino gehiago gupida
nirekin sentitzen zuela gehienetan
maitale etsitu baten antzera,
eta horregatik erabaki nuen
moztea nire erlazioa
iruzur bat izan zitekeelakoan;
hotz-hotzean egin nuen hori
azalpen txiki bat emanez;
geroago elkartzen garenean
geure arteko sinpatiari ekiten diogu
erresuminik ez izanez;
baina ez dut gogoratzen
berarekin iragandako esperientzia,
denon interesei buruz
baitugu ze solas egin;
orain bakarrik nago aske eta zoriontsu,
edertasunaz mila moduz gozatuz,
denbora engainatzen dudan bitartean.

Kirola

Kirolari iaioak huts egin du nabarmenki
eta publikoak bere burua eskatu du
irainez, oihuez, orroez,
harmailetan altxatu da sutan
bere amorruari ezin eutsiz
arrakasta nahitaez eskatzen duelako;
kirolari iaioaren gaurko jarduera

eskas suertatzen ari da taldean
jende sutsuaren iritziz;
ez dago ikusleko neutralik joku honetan
eta pasioak askatzen dira izugarri:
“hoberenak irabaz dezala”
erran liteke lasai,
baina ez dira gladiadore anonimoak
bietako bat heriotzara kondenaturik,
ez dira xake-jokalari serio eta hotzak,
honetan ere badira sinpatiak,
isilik dago publikoa, ordea,
ez dira ziklista ausartak lasterketan
betiere animoak jasotzen dituztenak,
hau futbola da, kirol erregea,
non egundoko dirutza mugitzen baita,
eta ikuskizunak erakutsi behar du
berez bizitzak ematen ez duena,
beraren ordezkoo berezia delako.

Andre baserritarra

Sendoa eta ongi hornitua da
bakarrik bizi den andre baserritarra,
aldaka ederrak ditu eta bular bikainak,
hogeita hamabost urte bete ditu jada,
baina neska gazte baten aurpegi
zabal, adierazkor eta bizia dauka;
gurasoak hil ostean aitonarekin bizi izan zen
eta berak erakutsi zion baserriko lana
orain andreak soilik daramana;
badu ohitura bat aitonak irakatsi ez ziona:
txerri bat hil behar duen bakoitzean
erakartzen du maitagarri zuhaitz baten azpira
txakurtxo bat balitz bezala,
besarkatzen dio burua hitz adeitsuak xuxurlatuz,
laztantz du poliki-poliki bizkarrean,
eta, astiro, ondoan duen aiztoa hartu
eta moztu dio animalari aorta
odolustu utziz besarkatzen duen artean;
“heriotzaren beldurra, heriotza bera
baino okerragoa baita”, pentsatzen du baserritarrak,
eta horregatik hiltzen ditu txerriak horrela,
beste moduz, hiltzera doazela
dakitelako izugarri sufritzen dute;
gaur gauean zarata handi batek iratzarri du,
jaiki da ohetik eta istripu bat izan duen
kotxe irauli bat aurkitzen du baserriaren ondoan
barruan gizon gazte bat konorterik gabe izanik;
hortik aurrera andre baserritarraren bizimodua
erabat aldatzen da:

badauka etxean gordeta diru mordo bat
lapurtu omen dueneko gizon estrainioarena,
baina andrea hasieratik maitemintzen da beraz,
beraren gorputz biluzia artatzen duenean;
geroago gizonak aitortzen dio minbizia duela
eta denbora gutxi falta zaiola hiltzeko;
andrearekin maitemintzen da gero
eta larrua jotzen dute behin eta berriz,
baserritarra zuriz jantzita, ezkontzen dira
eta bera da senar abaildua besoetan hartuta
etxean sartzen duena;
gauza askoz gehiago gertatzen dira
ederki kontaturiko film hunkigarri honetan,
hala ere hauexek dira nik nabarmendu
nahi nituenak eta nola gizon gaixoak
bere azken egunak bukatu arte
pasatzen ditu baserri hartan
andre enamoratuak zainduta,
eta nola akabatzen duen eria
txerri maiteak bezala
gehiago ez sufritzearren.

Hi haiz, Emma,
azken muturreraino aurkitu dudan
amodio salbatzailea,
baldintzarik gabeko soroslea
bizitzaren hondoratze beldurgarri honetan,
hi haiz heriotzara kondenaturiko honi
eman dion akitutako esperantza atsegingarria
eta horrela azpiratu dinat heriotza,
kutuna, mila esker.

Lagunak joan dira

Lagunak joan dira
eta bakarrik geratu naiz
itsasoa harrotzen denean,
eguzkia errezel moreen atzetik
ezkututzen denean,
orduan Paveseren muinoak
iradokitzaileak agertzen dira
nire irudimen prestuan,
eta jadanik ezin dut ekidin
nostalgia pixka bat
ihes egindako denboragatik,
baina ez galdutako aukerengatik,
damutzen ez zaidalako
ilunpeei aurre egiteko garaia denean,
atzera jotzeko jada berandu denean
eta maitasunari amore emateko

ordu aproposa da,
bizitzaren kolpeak
samurragoak izateko,
abagune gehiago direnean,
eta lo, lo egin bederen
itsasoa berriro baretzen den arte.

Ez gara odol berekoak

Ez gara odol berekoak, lagun,
baina anaiak gara,
lurbira guztian ez dut aurkitu
zu bezalako adiskiderik;
zerua izarrez titakaturik
dagoen gau honetan
ari naiz zutaz pentsatzen,
nola hitz egiten duzun
ahots lakarrez
bizitza eta heriotzari buruz,
nola giza zapalkuntzaren inguruan
eusten diozun iritzi irmoari
askatasuna eta justiziaren
zutoihala beti altxatuz,
amarrurik eta azpikeriarik
behin ere erabili gabe;
lorratz sendo eta sakonak
utzi dituzu nigan
urte luze hauetan guztietan
nire oroitzapen lausoan
zerua mindu egin den bakoitzean
edo marmokek ziztatu nautenean;
nire koldarkeriaren kariatz
isilik edo atzera egiten dudanean
zu hor zaude tinko,
mamuengatik izutzeke,
agian egitandi edo balentriak
egiteko gauza ez zara,
baina bai berbako gizona
izateko modukoa,
erabat leiala zarelako, adiskide;
ez gara odol berekoak,
baina anaiak gara gero.

Biziaren beldur ote haiz?

Biziaren beldur ote haiz, laztana?
Kezka horrek itsutu egin hau
eta bestelakoturik hago orain,
baina gertutik ikusita
hi ez haiz horrelakorik,

azti maltzur batek, ordea,
oinazetzen hau erruki gabe
amodio-edabe sorgindu baten antzera
eta bihotza erdiraturik dun;
baina orduak eta kantak aletuz
hire zain nago, ene kutuna;
arren, ez etsi orain
geure maitasuna zaharberrituko baita
eta dohatsua izanen haiz berriz ere,
hirekin nagon oraintxe bereziki
haize onberak bezala
laino sarriaren sarea hautsi nahian.

Eguna aitzina doa

Goizeko bozkarioak ene barnea
asetzen du erabat,
egun berria, jaio berria,
atzendu zaizkit jadanik
atzoko kezka nagusiak,
eta gaur ez dut sinesten
nire kontra jende gaiztorik
egon zitekeenik;
bakea posible duk
denon artean mintzatuz gero,
pentsatzen dut alaiki;
baina eguna aitzina doa
eta, orduak pasa ahala,
zahartzen ari naizela
ohartzen naiz berriro,
gaua jaun eta jabe izaki,
kontuak emateko ordua dela eta
onartzen dut nire ontzia
itsas zabal eta ekaiztsuan
nabigatzen ari dela,
ubera apartsua sortuz,
loaldiak, ederraren ederrez,
bapo deseginen duena.

Gaueko ezproiak

Bart gaueko ezproiek
akuilatzen zidaten
ene gorputz artega
eta ezin nuen lo egin,
bor-bor bainuen burua
egunean iragandako kezkaz,
nire bizitzan dauden pitzadurak
ezin baztertuz;
adabakiz eta piltzarrez josia

zegoen nire irudimenak
ez ninduen bakean uzten,
eta burutazio beltz nahasiak
zurrumbilotzen zitzaizkidan
gogoan trumilka,
munduan denik eta
lekurik zitalena
nire ohea zela erabakiz
jaiki nintzen etsita,
eta karrikan osterat bat
egitera joan nintzen,
ilargia lagun,
gaueko ordu txikiak arte
geratu nintzen oheratu gabe,
gaueko ezproiak baretu zirenean.

Uraren ereserkia

Behinola ibaiko harribilek
ez dute uraren ereserkia kantatzen
berak miazkatzen ez dituelako,
egarriak dago hemengo erreka
uholdearen zain,
bakarrik putzu bakanak
geratu dira han-hemenka
lekuko hezeen antzera
uda honetan;
geure semeek ganoraz
zultatzen dute muinoko aldapa
euren aitzur txikiekin
aitona baratzezainaren lana
imitatu nahian;
hau erretiroaz gozatzen ari da
lursail txiki bat lantzen
jaio zeneko herrixka honetan,
eta ni hausnartzen ari naiz
merezi duela familia edukitzeak,
ez konpainiagatik bakarrik,
behin-behinekoa izan arren,
baizik eta uholdea baldin badator
babeslekuren bat izanen baitugu,
eta berriro harribilek
abestuko dute uraren ereserkia.

Etxeko modeloa

Ezpain gorriminak ditu margotuta
modelo galant horrek
ibiltoki txukunean zehar bere gorputza
ederki kulunkatzen paseatzen duenean;

bular txikiak ia begibistan dauzka oro
eta alde batetik bestera dantzatzen,
soineko dotore eta bitxia erakusten duen artean;
nire ondoan eserita dagoen andreak, berriz,
ez ditu ezpain gorriminak,
ezta margotuta ere,
marrubi margul kolorekoak baizik,
eta bere bular sendoek erakartzen naute orain
amultsuki laztantzen ditudanean,
pantailan agertzen diren modeloerekiko
interesa eta arreta erabat galduz,
hauxe baita eskueran daukadan
tankera lerdena duen andre maitea,
nire etxeko sorgin eta modeloa.

Musu bat behar dut

“I need a kiss”

Idatzita zegoen neskatxa haren kamisetan,
eta nire ingeles apalean
ongi ulertu nuen “behar dut musu bat”
neskatxaren bularraren gainean idatzita
zegoen eskaera gozo hura:
elastikoa beltza zen eta letrak zuriak
autobusean urrun nengoeneko lekutik
oso ongi irakur nitzakeenak;
hurbildu nintzen pixka bat,
distantzia egoki batez bere aurrean jarrita,
eskale premiatsuaren itxura
hobeto aztertzearren:
oso gaztea zen,
hamasei urte-edo zituen,
eta hasi nion galdetzen ene buruari
non beharko ote zukeen
musu ematea,
ziur aski ezpainetan,
pentsatu nuen lehendabizi,
ezpain fin, gorri eta erakargarri haietan,
mutil-lagun presturen bat
ez zuelakoan bainengoen
eskari premiazko hura betetzearren,
edo bai, bazuela, baina ez zela nahikoa,
eta behar zuela gehiago, nabarmenki,
edota soilik aditasuna behar zuela;
hausnarketa hauetan murgilduta nengoela
mutil gazte bat
eseri zen bere ondoan
eta hasi zen berarekin hitz egiten,
ausarki, ezezagunak zirela nabaria izaki,
baina neskak aurpegi txarra paratzen zuen

mutilaren elkarrizketa aditzean,
serios, monosilaboen bidez
bakarrik erantzunez;
orduak nire artean erran nuen:
“hik pentsatzen dukena
horrek, ausaz, ausartu da adierazten”,
baina ez zuen arrakastarik izan,
ezta masailean ere,
kamisetan musua aldarrikatzen zuena
jaiki baitzen hiruzpalau minutu pasata,
eta autobuseo ate ondoan ipini zen,
zutik, bere geldiunearen zain,
aditasuna erakarri ondoren,
“arrazoi dun, panpoxa,
denok behar dinagu musuren bat,
baina noiz eta norena
hori dun auzia”...

Esna ametsak

Zazpi mila miloi gizaki berrik
hartu behar zuten lur osoko
oraingo biztanleen tokia, halabeharrez;
bazegoen denontzako aukera paregabea,
eta ni jadanik aurreikusten ari nintzen
egoera eder eta ideal hori
kafetegiko terrazan eserita
goizeko eguzki samurrak
nire elastikoko letrak
argitzen zituen bitartean:
“Galburu berriak tai gabe ari dira hazten”,
Oteiza poetak zioenez.
Eta erreplikatzeko nuen behin eta berriz leloa
eguzki izpiek euren lana egin zezaten;
ez nuen irudikatzen zehatz-mehatz nola,
baina kanpotik etorritako milioika izaki
ari ziren sortzen
udako goiz argitsu hartan,
eta ni pozarren;
lagun berri-berriak izanen zituen
mundu ziztrin honek,
eta bakea eta zoriontasuna
eskuera izanen ziren behin betiko,
eta askatasuna nire nahieraren arabera,
Euskal Herriaren askatasuna
ziurtzat jotzen nuen
lurbiran ematen ari zen
berebiziko eraldaketa haren bitartez,
eta mundu osoko justizia, ogia, lana
eta libertatea ere bai...

Esna ametsak ziren haiek
obsesibo bihurtu zirenak, nahasiak,
harrapatu ninduten gero
eta egun batzuetan sartu
etxe berezi batean
betiko sena berreskuratu arte;
baina oraindik jarraitzen dut
amets egiten, gauez edo egunez,
bestela ezin bainuke bizirik iraun.

Txorrotako ur tantak

Bat-batean isildu da ahots urduri beti-bateko hori
eta gaua nagusitu da ordoki osoan zehar,
jadanik ez dira etxe barruko intziriak entzuten,
bakarrik txorrotatik pixkanaka ihes egiten duten ur tantek
hausten dute, apalki, inguruko isiltasun atsegina,
eta ni geratu naiz istorio ezaguna irakurtzen
non agertzen baita andre airosa baina ez ederra
bere mugak ongi ezagutzen dituen,
ez da buruiritzia, sena eta zuhurtzia ditu, ordea,
bere senarra ez dela ordezkazina pentsatuz
beste gizon egoki baten bila ibili omen da,
haren iruzurra egiazatu ondoren,
baina ez du batere aurkitzen;
beste emakume apropos batekin egiten du topo,
eta xera sortzen da haien artean,
sutsuki, egun batez laztanak elkarri egin,
oheratzen diren arte, zoriontsu eta asebateak;
beste emakumea ezkondua dago, berriz,
eta bere senarrarekin ere egiten du amodioa pozik;
denbora pasa ahala hau ohartzen da
bere emaztearen beste maitasun ezkutuz
eta hiruon zoriona eten egiten da.
Zergatik, diot nik, ez dira hiruok moldatu?
Errealitatetik ihes egin nahian
film porno bat paratzen dut
non bi emakume agertzen baitira
maitasuna egiten, ganoraz,
eta luzaro ekin ondoren
gizon bat azaltzen da tartean
hiruok larrua joz.
Orain txorrotako ur tantak gelditu egin dira...

Burundiko andrea

Andre beltzak begiratzen nau
ordenagailuko pantailatik, lasai,
serio, harro, aierukor eta erronkari,
badakielako duintasunez bizitzeko

arrazoi guztiak dituela;
zapi berdez badu burua estalita,
esperantzaren kolore argia,
eta ederra da, edertasun heldua
nabaritzen zaio bere hazpegietan;
begi sakonak ditu, ilunak,
odola ere islatzen da haietan,
bere herrian izan ziren sarraskiena
eta kolonialismoaren hainbeste urteena;
herri afrikar guztiak ikusten ditut
Burundiko andre lirain honen atzean,
justizia faltagatik pobreak,
“garatugabeak” deitzen dituzte
oraingo kolono berriek,
baina andre honen begirada
garatua da zeharo
eta niri mintzatzen zait zintzo eta duin,
eta maite dut
nire egoera pribilegiatutik
haren alde zer egin behar dudan
erabakitzen dudanean.

2008ko Otsailaren 4a

JOAKIN BALENTZIA TIRAPU